

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

FEDEAREN ESPERIENTZIA BIZI

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO
GOTZAINEN PASTORAL IDAZKIA**

2003, GARIZUMA – PAZKOA

AURKIBIDEA

SARRERA

**I.- KRISTAU ESPERIENTZIA POBRETUA ETA NOSTALGIAZ
OROITUA**

A) GERTAKARI KEZKAGARRIAK

1. “Jainko gabeziak” markatutako kultura
2. Kultura-gakoak Jainkoaren eklipsea ulertzeko
 - 2.1. Giza adimena goretsia eta murriztua
 - 2.2. Askatasun gurtua eta ezereztua
 - 2.3. Pentsaera eta sentiera nagusituak
3. Fededunaren esperientzia makaltzen duten gizarte-gakoak
 - 3.1. Gaitza eta injustizia
 - 3.2. Gaurko sasi-jainkoak
4. Gako pertsonalak
5. Fededunen elkarte barneko gakoak

B) ITXAROPENEZKO ZEINUA

1. Federa itzultzeko ibilbideak
2. Erlijio-bilaketara bideratzen duen nahigabea
3. Gure garaiko erlijio-korronte batzuk
4. “Jainkoaren isiltasunaren” beste aldea

5. Giza balioak bizitzeko era “erlijioso”

II.- KRISTAU ESPERIENTZIAREN EZAUGARRI OROKORRAK

1. Jainkoaren presentzia jatorrizkoa
2. Jainkoak ematen du lehenengo pausoa
3. Geure pertsonaren erdi-erdian ukituak
4. Bihotz berria gizaki berriarentzat
 - 4.1. Kristau-mezuaren ulermen biziagoa
 - 4.2. Erabateko konfiantza
 - 4.3. Berezko leialtasuna
 - 4.4. Maitasuna
 - 4.5. Poztasuna
5. Jainkoa “bizkarraldetik” eta ilun antzean ikusten dugu beti
6. Bekatari-esperientzia
7. Itsaso handian

III.- KRISTAU ESPERIENTZIAREN BERARIAZKO EZAUGARRIAK

1. Kristau-fedearen esperientzia
2. Jesu Kristori buruzko esperientzia
3. Esperientzia Espirituagan
4. Jainkoaren esperientzia Jainko eta Aita bezala
5. Fede-elkartearen baitan bizitako esperientzia
6. Esperientzia munduan
7. Jesu Kristo, “gure fedearen iturburu eta betetzailer” (ikus Heb 12,2)

IV.- EGUNEROKO KRISTAU ESPERIENTZIA

1. Kristau-esperientzia ezkon eta famili bizitzan
2. Kristau-esperientzia lanean
3. Gaixotasunaren eta heriotzaren esperientzia
4. Fede-testigantzaren esperientzia

5. Otoitzaren esperientzia
6. Kristau-esperientziaren desitxuratzea
 - 6.1. Joera arrazionalista
 - 6.2. Murritzeta etikoa
 - 6.3. Sentimenduaren neurritz kanpoko handitzea
 - 6.4. Intolerantzia iluminista
 - 6.5. Jarrera pasiborako joera
 - 6.6. Jarrera boluntarista

V.- KRISTAU ESPERIENTZIA BERRITURANTZ

1. Eliza osoarentzako deia
2. Vatikanoko II. Kontzilioaren jarraibide orokorrak
3. Nola landu kristau-esperientzia fededun motibatuengan
 - 3.1. Bere osotasunean balioetsiz
 - 3.2. Otoitz egiten ikasiz eta irakatsiz
 - 3.3. Bihotza prestatuz eta araztuz
 - 3.4. Testigu handien irakurketa
4. Nola esnatu fede ahuleko kristauak
 - 4.1. Beren bizitzako esperientzia batzuei izena eman
 - 4.2. Sarbide erako pastoraltza
 - 4.3. Federekin bat ez datozen bizierak utzi
 - 4.4. Baztertuen aldeko zerbitzua
 - 4.5. Herri-debozioak onartu eta araztu
5. Nola esnatu esperientzia hau sinesgabe artega zintzoengan
 - 5.1. Funtsezko giza esperientzien bihotzean
 - 5.2. Testigantza
 - 5.3. Jainkoa existitzea nahi izatea

BUKAERA

SARRERA

“Bihozberri zaitezte eta sinetsi Berriona” (Mk 1,15). Hitz hauek entzuten ditugu urtero Garizumaren atarian bertan errautsa hartzen dugun bitartean. Oso ondo eta zehatz laburtzen dute liturgi urteko aldi berezi honen grazia eta eginkizuna. Sinestea eta bihozberritzea, estu loturik dauden kristau-ibilbideko bi urrats dira. Ez dago bihozberritzerik federik gabe. Federik gabeko bihozberritzea berriztatze moral hutsean geratzen da. Ez dago bihozberritze sakonik fede sakonik gabe.

Fedearen beharrak eta fede hori sustatzeko eta lantzeko gure egunotan sumatzen dugun aparteko zailtasunak bultzatu gaituzte zuen gotzainok gai nagusi honi maiz begiratzera, Garizuman bihozberritzeko deia zuei egitekoan. *Jesukristoren Jainkoagan sinestea gaur egun* (1986), *Fededun izan federik ezak jotako egunotan* (1988), *Sinesmen biziagoaren zerbitzuan* (1997), *Fedea gaur egun transmititzea* (2001), gure idazkion edukiaren izenburu esanguratsuak dira.

Aurten, geure fedearen nahitaezko alderdietako bat nabarmenduko dugu, sendotu egin behar dugun alderdia, hain zuzen ere: kristau-esperientzia. Honi esker, sinesmena bizipen egiten da. Fededunaren jokabidean burua, borondatea eta sentipenak biziago sartzean, sustraitu egiten da fedea giza bihotzaren lurrean. Esperientzia pizten ez bada, fedea moteldu egiten da. Fedeak gizarteko gertakari aipagarri bezala bizirik iraungo badu, beharrezko da esperientziaz ongarritzea. “Etorkizuneko gizaki fededuna mistikoa izango da; bere baitan zerbait bizi izan duen pertsona izango da, edota ez da fededun izango; izan ere, fededun izatea etorkizunean ez da gauza publiko, bateratu eta normala izango” (K. Rahner).

Kristau motibatu eta konprometituengan, ohiko eta noizbehinkako praktikan teengan eta fede ahuldua bizi dutenengan sinestedun-esperientzia indarberritzea da Idazki honen asmo nagusia. Gure gutun honek badu funtsezko beste asmo bat ere: kontu handiz bete beharra den zeregin honen eliz arduradunak bideratu eta adoretzea. Ahaztu ezin dugun helburua da, bestalde, giza ardura zintzoen aurrean sentibera diren sinesgabeei nahiz axolagabeei fedearen esperientziaren mundura hurbiltzeko deia egitea.

Gure Idazkiaren jasotzaile guztiongana hurbiltzeko, ondoko urrats batzuk emango ditugu. Lehenengo eta behin, gure garaian eta gure herrian, kristau-esperientziaren azaleratzea galarazten duten eragile batzuk deskribatzen saiatuko gara, eta, aldi berean, era bateko eta besteko gizarte-gertakarietan nabarmentzen den erlijio-esperientziaren bilaketaren zeinu adierazleak emango ditugu ezagutzera. Bigarrenez, luze eta zabal aurkeztuko dugu, hainbat kapitulutuan, zertan datzan esperientziak aberasturiko fedea, eta zeintzuk diren kristau-

esperientzia erlijiosoaren ezaugarri nagusiak eta berariazkoak. Azken kapitulu-
lan, gure elizbarrutiek bere egin beharko lituzketen pastoral aukerak azalduko
ditugu, eta esperientzia hori sortzeko, aberasteko eta bizkortzeko gauzatu be-
harko luketen pedagogia.

I.- KRISTAU ESPERIENTZIA POBRETUA ETA NOSTALGIAZ OROITUA

A) GERTAKARI KEZKAGARRIAK

1. “Jainko gabezia” markatutako kultura

“Jainkoaren eklipsea da bizi dugun orduaren gertaera bereizgarria” (M. Buber). Fededunaren Jainko-esperientzia ilundu eta makaldu egin da neurri handi batean, batez ere kontinente europarrean. Lausotu egin dira nabarmenki gure gizartean gure aurrekoek beren inguruan antzematen zituzten Jainkoaren aztarnak. Gure garaikide gehienek ez dute Jainkoa ukatzen; baina aparte jartzen dute “begirunez”. Ia berez-berez Jainkoari buruz hitz egiten zuen mundu naturala opaku eta mutu bihurtu dela dirudi, gizakiari buruz hitz egiten duen “bigarren eskuko” munduaren kontura. Jainkoaren sorkaritzat baino askoz gehiago, gure garaiko gizon eta emakumeok sortzailatzat dugu geure burua. Existitzen denaren lehen Jatorriari edota azken Zentzuari buruzko galderei baino arreta gehiago eskaintzen diegu mundu honetako errealitateen funtzionamenduaren legeei eta erabilgarritasun praktikoari. Gure herrikide askorentzat, “gure garaiko ingurune erlijiosoan nagusi den esperientzia, inolako erlijio-esperientziarik ez izan izanarena da, Jainkoa dei dezakegun zerbaiten inolako eraginik, eta are gutxiago, haren eraldaketarik nabaritu ez izanarena” (B. Welte).

Giza esperientzia osoaren eta kristau-esperientziaren arteko alde kezka-garria ez da gertakari guztiz arrotza fededunen elkartean. Neurri batean, kristau askoren zainetara igarotzen ari den gauza da. Egia da, gutxiengo baten fedea bizia, kementsua eta bihotzekoa dela. Etxean bezala daude fedearen munduan. Beraientzat, berezkoa da sinestedun izatea, sinestedun bezala azaltzea, fedearen izenean beren buruak konprometitzea. Sinestedun eta eliztar bezala duten esperientziaren eta beren bizi esperientzia osoaren arteko tirabirak bizi dituzten arren, ez dira bereziak sentitzen, ezta arrotz ere, fedearen elkarteko giroan. Beren famili, lanbide-, gizarte- eta aisia-esperientzia ondo uztartuak dauzkate oinarrian beren fede-esperientziarekin.

Baina hau ez da egia osoa. Kristau askoren fedea, baita elizkoi askorena ere, ez da sustraitu beren bizi-esperientzia osoan. Beren fedea, eta beren bizitza zuzentzen duten oinarrizko irizpide asko ez daude funtsean bat eginda. Kristau-mezuaren muinak (Hirutasuna, Gizakundea, Pazko Misterioa) “ezer gutxi esaten die”, nahiz eta fede berorren adar garrantzitsuenetako batzuek (adib., behartsuen aldeko zerbitzua) oihartzun nabarmena izan beraiengan. Normalean ez dira gustura sentitzen elkartearen liturgi ospakizunetan. Beren sentiera etikoa aldendu samarra dago kristau-elkartearen irizpide moraletatik. Ohiko bakar-kako otoitza neketsua suertatzen zaie eta, sarritan, artifiziala. Jainkoa urrun dago. Ia ez dute sumatzen haren presentziaren arrastorik beren maitasun-, lan-, kultura- eta gizarte-bizitzan. Nik, sinesten ote dut benetan?, galdetzen diote batzuetan beren buruari arduratuta.

Eta, hala ere, “jarraitu egiten dute”. Bada zerbait ohitura hutsa ez dena, erlijio-kutsu sakonaz jantzitako iraganaren hondar huts edota familiako kristau-usadioaganako leialtasun hutsa ez den zerbait, baieztapen argi hau egitera bul-

tzatzen dituen: “Ni kristaua naiz”. Altxor preziatua da “zerbait hori”. Baina sinestedun hauen kristau-esperientzia pobrea da, eta esperientzia horren etorkizuna zalantzazkoa.

2. Kultura-gakoak Jainkoaren eklipsea ulertzeko

Nola ulertu European zabaltzen ari den eta munduaren historian berri samarra den gertakizun hau, Jainkoa izanik garai guztietan eta oraindik ere gizakiaren zaindaririk onena eta adiskiderik minena? Badira analista argiak, gertakari kezkarri honen arrazoi kultural, sozial eta pertsonalak, baita Elizari dagozkionak ere, zehazten dituztenak.

2.1. Giza adimena goretsia eta murriztua

Mendebaldeko historiako azken mendeetan izugarri baloratua izan da, aurreko garaietan gutxietsia egon den giza adimena. Hala ere, jakintza-iturri bartzat eta gizadiak dituen arazoen konponbide nagusitzat giza adimena hartzeko joera dago. Tradizioari eta agerpen edo errebelazioari balioa kendu zitzaizen, lehenengo, benetako jakintza-iturri bezala, eta gero baztertuak izan ziren.

Goretsia izan den giza adimena murrizten joan da, apurka-apurka, era kezkarri; esperientzian oinarritutako zientziak eta berauek gure beharren konponbiderako erabiltzen dituen teknika lirerateke adimenaren egiazko esparru bakarra. “Esperientziarik ez dugunari buruz, hobe ez hitz egitea” (L. Wittgenstein). Gainerako guztia aurre-iritzi irrazionalei edo sentimendu subjektiboei dagokie.

Pentsaera hau zabaltzen joan da gutxiengo ilustratuengandik gizarte osora, eta horrela pentsatzeko eta sentitzeko joera hartu du gure gizarteak. Gauzen zentzuari buruz galdetzea ez litzateke ez zientifikoa ezta arrazoizkoa ere. “Zentzuari buruzko galderak ez du zentzurik” (J. Monod). Erlijioa, besteak beste, biziaren zentzuari buruzko galderari emandako erantzuna denez, ez da harriztekoa kultura-mailan baztertua geratzea.

Baina gizadiaren esperientzia kolektiboak, denboraren buruan, zera antzematen du: hainbeste arazo konpondu eta hainbeste aurrerapen eragin duten zientziak eta teknikak ez dituztela beste arazo garrantzitsu batzuk konpontzen, batzuetan areagotu baizik; esate baterako, aberastasunaren banaketa, nazioarteko harremanak edota izadiaren kontserbazioa. Gure garaiko egoera espiritualean, kezka bat sumatzen da: “existitzen den ezerk ez du benetako baliorik; ezerk ez du benetan merezi”. Nihilismoa da. Vatikanoko II.aren hitzak egokiak eta kezkarriak dira: “Jainkoa ahazteagatik kreatura bera ere ilunduta geratzen da” (*Gaudium et spes*, 36. zenb.).

2.2. Askatasun gurtua eta ezereztua

Garai modernoetako beste lorpen handietako bat askatasunaren aurkikuntza aparta da. Aldi honek duen bereizgarrietako bat norbere kabuz pentsatzen ausartzea da dogmatismo oro gaindituz eta, gainera, aske izaten ausartzea, es-

klabotasun guztietatik libratuz. Benetako giza aurrerabidean urrats esanguratsuak izan dira (nahiz eta batzuk oraindik neurri batean gauzatzeke egon) hainbat lorpen: herritarren askatasuna agintearen boterearen aurrean, langileen askatasuna enpresarioen aurrean, beste herri batzuen menpean dauden herrien askatasuna, emakumearen askatasuna, edota inposatutako erlijioaren aurreko askatasuna.

Gizakiari dagozkion gauza guztien antzera, askatasunaren balio zintzoak ere baditu bere baitan berariazko deabruak. Izan ere, jainkoa balitz bezala gurtua denean, norberekeriaren kultura nartzisista bihurtzen da sarriegitan askatasuna. Horrela hartzen denean askatasuna, herritar askok liberatua, edo gutxienez arindua, sentitzen du bere burua, kontzientziaren bidez zuzentzen gaituen etikaren interpelaziotik. Gurari indibidual guztiak asetzeko frankizia bezala bizitako askatasunak laster makaltzen ditu familian, gizarte-taldeetan eta herrietan elkarrekiko kidetasuna eta sentipena sortzen dituzten elkartasan-lokarriak. Horrela “liberatutako” askatasunak berehala uzten du alde batera besteen, izadiaren eta geroko belaunaldien aurrean duen erantzukizuna. Horrela gauzaturiko askatasunak laster sortzen ditu, zoritxarreko kateatzea dakarkioten esklabotasun berriak. Oparotasunaren gizarte honetan hain nabarmenak diren menpekotasunak datozkigu gogora. Honelako askatasunak sorgor uzten du giza sentiberatasuna, eta lausotu egiten gizakiek gure fedearen Jainkoarekin duten menpekotasun onuragarria.

2.3. *Pentsaera eta sentiera nagusituak*

Giza adimen goretsi eta murriztuak eta askatasun gurtu eta ezereztuak, ezaugarri desberdinak eta, era berean, bateratuak dituen kultura-giroaren sortzea ekarri dute. Utilitarismoa, pragmatismoa, “asebetetzearen kultura”, presa kronikoa, gehiegi programatutako bizitza, norbere egitasmoa gauzatzearen inguruko esklabotasuna, horiek dira kultura horren osagairik nabarmenenak.

Jarrera utilitarista eta pragmatikoak egiten duen ia galdera bakarra, gauzek zertarako balio duten da; horrelako jarrera duenak ez du interesik agertzen Jainkoari buruz, ezta norberaren Jatorriari eta Jomugari buruz ere, edota bere buruaren zerbitzura eta zuritzaile bihurtu nahiko du Jainkoa.

Maisutasunez deskribatu zuen Galbraight-ek “asebetetzearen kultura”; usteldu egiten duela, zioen berak, giza nahi zintzoa; izan ere, berehalako beharrak (batzuetan artifizialak direnak) asetzearen gaintetik, giza nahi zintzoak berezkoa du giza eta erlijio-kezka handietara irekitzeko joera, gozamen hutsa ez baizik eta kezka handi horiek agintzen duten poza bilatzeko.

Bereziki gizarte industrialetan ezarri den presak eroapen gutxiko bihurtzen gaitu errealitateari begiratzeko eta Kant filosofo zaharrak zoragarri adierazten zituen galdera sakonen antzekoak egiteko: “Zer da jakin dezakeguna? Zer egin behar duguna? Zer da itxaron dezakeguna? Zer da gizakia?”. Bizitza, horrela, hutsal eta azaleko bihurtzen da. Giza giro honetan, Jainkoari buruzko galderak, Jainkoa bilatzeak eta Jainkoa kontenplatzeak ez dute ia lekurik.

Geure buruarentzat eratu dugun egitasmoa gauzatzera bakarrik programatutako eta zuzendutako bizitzak gaitasunik gabe uzten gaitu geure bihotzari en-

tzuteko, Jainkoari itzaroteko, zer-nolako egitasmoa duen gure bizitzarako Berari galdetzeko eta beraren gidaritza onartzeko.

3. Fededunaren esperientzia makaltzen duten gizarte-gakoak

3.1. Gaitza eta injustizia

Hainbat erataraz azaltzen den gaitza, eta beronen iraunkortasuna eta trinkotasuna, interpelazio edo galdera izan dira beti Jainkoaganako fedearentzat. Gaitz hau injustizia larria denean, eta biktima errugabeen sufrimendua eragiten duenean, eskandalu bihurtzen da, eta Auschwitz-eko kontzentrazio-esparruko patioan gurutziltzaturiko haurraren aurrean hango presoek ezarritako oihu bihurtu zen galdera eragiten du: “Non da Jainkoa?”. Munduko gosetea, herri osoen sarraskia, erailtzen eta beldurra eragiten duen terrorismoa, zoritxarreko izurriteak dira, biktimen, testiguen eta eragileengan ere erlijio-esperientzia iluntzen duten izurrite beldurgarriak. Biktimek bakardade hotza eta erabateko bazterketa jasaten dituzte. Testigui galdera sortzen zaie: hain ugariak eta handiak diren zoritxar eta sufrimenduak eragozten ez dituen Jainkoak merezi ote duen existitzea. Gaitz horien eragileei, berriz, ezinezko gertatzen zaie, beren bihotz-gogortasunagatik, Jainkoa benetan sentitzea, izan ere “maite ez duenak ez daki deus ere Jainkoaz, Jainkoa Maitasuna baita” (1 Jn 4,8).

3.2. Gaurko sasijainkoak

Jainkoaren Presentzia sumatzeko baldintzak desegiten dituzten “Jainkorik gabeko erlijio” anitz dago gure gizartean. Giza errealitate bat, guztiz ona eta baliotsua izanik ere, absolutu bihurtzen denean, bateraezina da Jainko Absolutuarekin. Dirua, agintea, atsegina, aberria, familia bera, gizarte-mailan onartutako absolutu bihurtzeko daiteke eta benetan Balio Nagusia den Bakarria ordezkatu dezake. “Gizakiok absolutuak egiten ditugunean, gurutziltzatu egiten dugu Absolutua” (J. I. González Faus).

4. Gako pertsonalak

Gizarte-giroa pertsona sinestun edo sinesgabe askoren hezurretaraino sartzen den behe-lainoaren antzekoa da. Baina gudan aurkitzen dugun gaitza ez da kanpotik kutsatu zaiguna bakarrik. Gizabanakoen eta gizartearen arteko eragina elkarrekikoa da bene-benetan. “Onena eta txarrena egiteko gauza den” (*Gaudium et spes*, 10. zenb.) giza bihotza bera ere gaixorik dago.

Askoren kristau-esperientzia zailtzen duen baldintzetako bat azalekotasuna da. Gure fedearen Jainkoarekiko bat egitea gure bizitzako esperientzietan gauzatzen da, bizitzak nolabaiteko sakontasuna duenean. “Azaleko bizitza” eramaten badugu, ez dugu Jainkoaren uhin-frekuentzia sintonizatzerik lortuko.

Aktibismoak ere (hau da, larritasun obsesiboa lagun izan ohi duen gehiegizko ekintzak) gortu egiten ditu gure belarriak Jaunaren deia entzuteko. Sarritan, Jainkoarekin bat egiteko hain garrantzitsua den konfiantzaz beteriko jarretarako zailtasuna estaltzen duen gehiegizko erantzukizunetik erator daiteke.

Harekin elkartzeko leku bikaina den gure barnetik ihes egite interesatua ere izan daiteke. Haren Presentzia sumatu eta onartu ahal izateko ezinbestekoak diren barruko bakea eta isiltasuna galarazten ditu.

Inguruak gudan jarriak dituen itxaropenetara moldatzera garamatzen gizarte-mimetismoak ere itxi egiten dizkigu Jainkoaren presentzia antzemateko bideak. Gizarte-mailan ospea lortzeko grinak eta geure buruaz dugun balorazio eskasak geure egitera eramaten gaituzte gizartean onartuak dauden iritzi, jarrrera eta jokaerak. Gaur Jainkoa ez dago modan. Gauza guztien gaitetik modan egon nahi dutenek apenas duten aukerarik Jainkoaren ikuspegiari jartzeko.

Laburbilduz: edukitzearen idolatria orok, agintearen nolana hiko lilurape-nak, erabilgarritasun edo gozamenaren inguruko morrontza orok sorgor egiten gaituzte, gure bizitzan etengabe azaltzen den eta jarduten duen Jainkoaren zeinuak sumatzeko.

5. Fededunen elkarte barneko gakoak

Guk, sinestedunok, ba ote dugu erantzukizunik geure inguruko erlijio-esperientziaren goibeltzean? Vatikanoko II.aren baieztapen baten arabera, baietz esan dezakegu: “Sinestedunek zeresan franko izan dezakete ateismoaren sorreran, izan ere, federako hezkuntzari kontu ez egiteagatik, doktrinaren aurkezpen faltsua egiteagatik edota bere erlijio, moral nahiz gizarte-hezkuntzaren akatsengatik, Jainkoaren eta erlijioaren benetako aurpegia ezkutatu egin dute, eta ez agertu edo errebelatu” (*Gaudium et spes*, 19. zenb.).

Asko dira laiko eredugarriak, gorputz eta arima diharduten apaizak, Jainkoari benetan sagaratutako lekaidetako eta lekaiak. Hala ere, gure sinestedunen elkarte zehatz asko eta asko, orokorrean, pobrea dela iruditzen zaigu espiritu-bizitzan. Beharbada hauen fedetako egin du beharrezko ahalegina arrazoizkoagoa izateko. Baina arima galdu duela dirudi. Bertan ez da Jainkoaganako grinarik ikusten, ez Jesu Kristorekiko atxikimendu afektibo eta eragin korrik, otoitz-deboziorik, jokaera moralaren ebanjelio-senik, edota beren fedetaren testigantza bizirik ere. Fededun askorengan ez da sinestearen alaitasunik eta elkarteko kide izatearen pozik nabarmentzen.

Artzainengan eta erlijioso-elkarteetan halako makaltasun erlijiosoa aurkitzen dugu. Beharbada gutariko askoren anemia espiritualak da gaurko eliz egoeraren arazorik larrienetakoa. Espirituaren bideetatik gidatuko gaituzten irakasleen eskasia bistakoa da. Gure pastoral egitasmoek ere ahuldadea eta bizitasun falta senti dezakete, eta hori ez daiteke ordezkatu antolakuntza ondo zaintzearekin eta boluntarismo nekagarriarekin. Bikotearengan hilda edo makalduta dagoen maitasuna harreman-teknikariek finenek ere berrituko ez duten bezala, gure kristau-bizitza eta testigantza espiritu-bizitza gogoz eta adoretzu lantzetik bakarrik erneko dira. Hona hemen gartsuki eskatu behar dugun grazia bat; eskatu eta, aldi berean, landu behar dugun grazia.

Gogorra da Jainkoaren isiltasuna historiako ordu honetan. Interpelatzailea eta kezkarria. “Gure garaiko gau iluna” da (Joan Paulo II.a). Honela islatzen du olerkariak bertso hauetan: “Berririk gabe gaude, / itxaropenaren berririk

gabe; / berririk gabe gaude, / maitasunaren berririk gabe; / berririk gabe gaude, / Jainkoaren berririk gabe” (R. Mogin).

B) ITXAROPENEZKO ZEINUAK

1. Federa itzultzeko ibilbideak

Giza kontzientziak utzi ote dezake alde batera Jainkoa, inolako ondorio mingaririk gabe eta era hain apatikoan? Ez ote da nabarmenduko, zirrikituren batetik, gizakiaren bihotzak ezin duela Jainkoa horrela baztertu? Gaurko baldintzak direla medio, Jainko-nahia azaleratzea eta haren presentziaren esperientzia, neurri handi batean, blokeatzen eta itotzen baditugu, ez ote ditugu hantzen antzemango “isilik gotera behartutakoaren itzuleraren” zeinuak?

Aditu handien (A. Vergote, A. Hardy) azterketa batzuek zera erakusten dute: ez gutxi bakar batzuek bakarrik, baizik eta fedetik aldentutako pertsonen portzentaje adierazgarriak, ez dutela honako aitormen hau besterik asmatzen beren bizitzako gertakizun jakin batzuetan bizi izan dutena esateko: “Jainkoa existitzen da; nik topo egin dut Berarekin” (A. Frossard).

2. Erlijio-bilaketara bideratzen duen nahigabea

Fede-kezkaren iraupena, gutxienena den arren, ez dirudi ezohiko eta bakarkako gertakaria denik, soziala baizik; fedetik eta fededunen elkartetik aldentutako bizi-giroetan hazi den edo, behintzat, urteetan urruntasunean bizi izan den gero eta pertsona gehiagok, erlijio-ikuskerarik gabeko bizitzaren nahigabea bizi du, eta laguntza eskatzen du federako sarbide-prozesuan. Frantziako hamar mila pertsona helduk hartu zuen Bataioa azken Pazko Gauean, federako sarbide-prozesua egin ondoren. Segur aski, ibilbide itxaropentsuaren hastapenak dira pertsona askoren bizitzan ikusten ari garena.

3. Gure garaiko erlijio-korronte batzuk

60ko hamarkada inguruan, epe laburrera, erlijioa, fenomeno sozial gisa, desagertu egingo zela iragartzen zuten soziologoak harri eta zur geratu dira ezusteko gertakari baten aurrean; zehaztasun handiagoz edo txikiagoz, “erlijio-esnatzea” deritzana eta mugimendu erlijioso berrien eskutik datorrena da gertakari hori.

Talde hauen ugaltzea oso zabala da. Era askotakoak dira. Erlijio handiak gizakiaren erlijio-egarriari erantzuteko gauza ez direla iruditzen zaielako, banandu egiten dira haietatik; baztertu edo inkomunikatuengana zuzentzen dira, batez ere, eta bakarkako salbamena eskaintzen diete mundu honen barnean. Erlijio-esperientzia subjektiboa azpimarratzen dute; eta asko nabarmentzen dituzte kideen arteko elkartasun afektibo eta eraginkorraren balioa, eta gizartean desberdin izatearen kontzientzia. Biziki baloratzen dituzte buruzagiak, eta egundoko grina dute jarraitzaile berriak erakartzeko. Kosta ahala kosta hedatu nahi izatearen eraginez, proselitismo lotsagabearen erortzen dira sarritan. Buru-

zagiekiko loturak agerian uzten askotan haienganako menpekotasun egiazkoa eta kaltegarria. Beren sinesteen inguruko fundamentalismoak galarazi egiten dizkie autokritika eta benetako elkarrizketa.

Beren gabeziak eta anbiguotasunak ugariak diren arren, badirudi mugimendu hauen hedapen, bizitasun eta iraunkortasunak, erlijioaren hondamendia erakusteko ordez, aurkakotasuna eta protesta adierazten dutela: errealitatea bere osotasunean kontenplatu, errespetatu eta beraren jatorri eta zentzuaz galdetzeko ordez, errealitate hori azaltzen, menperatzen eta zatikatzen temati diharduen kultura eta gizarte-giroari buruzko aurkakotasuna eta protesta. Mendebaldeko gure gizartean erreprimitutako erlijio-kezkaren itzulera lirateke talde eta mugimendu hauek. Gizakia, berez, bere gainetik dagoen Zerbaiti edo Norbaiti zabalik dagoela erakutsiko ligukete. Eta kontrako hainbat baldintzaren eraginez kateatua badago ere, gizakia, halabeharrez, Jainkoaren bila dabilen izakia dela, Jainkoa beraren bila dabilelako.

4. “Jainkoaren isiltasunaren” beste aldea

Beste honek ere zer pentsatua eragiten digu: gure garaikide askorengan Jainkoa ilundurik uztea dakarten zeinu handietako batzuek, Harenganako fedearen aurkikuntza sakona edo, gutxienez, Jainkoa existitzeko nahia eragiten dutela beste batzuegan. Gure garaiko hainbat krudelkeriak gutxienez nostalgia bat piztu dute gaurko sentsibilitatearen espiritu esanguratsu batzuegan: historiako borreroak beren biktimen gainetik ez nagusitzea bermatuko lukeen Jainkoa egotea. Irtenbiderik gabeko gaixotasun gogorrean egoten den oinazearen esperientziak konfiantza eta itxaropenezko mugimendua esnatzen du sinesgabe batzuegan, beren egoera minberaren bidez antzematen duten Norbaitenganako konfiantza. “Ezerk ez du balio”, “ezerk ez du merezi”, dioen sentsazio hedatuak ere, benetan Balio Pertsonala izango duen eta beste balio batzuen sendotasuna eta iraunkortasuna bermatuko duen Norbaitenganako mira sortzen du pertsona batzuegan. Aspalditik, Erlijioaren psikologiaren azterketek haxe erakusten digute, harriduraren batekin: pertsona bat astintzen duen bizitzako gertakari beraren aurrean, Jainkoak ez diola “laguntzen” ikusten duenaren jarrera, fedetik aldentzea izan daitekeela, edota federa gehiago hurbiltzea.

5. Giza balioak bizitzeko era “erlijiosoa”

Pertsona zintzo eta koherente asko balio garrantzitsuei (giza bizia, duintasuna, askatasuna, elkartasuna, berdintasuna) atxikitzen zaie, beraiantzat balio absolutua duen zerbaiti bezala. Balio hauekin beren bizitza konprometitzen dute, mila erataraz sustatuz balio horiek boluntario-lanbidez. Balio horiek ez dira, besterik gabe, norberak aukeratu eta nahi duenean bazterrera utz ditzakeenak. Erakargarriak, interpelatzaileak dira beraiantzat. Agindu dira beren bizitzarako. Balio hauek harrapatu egiten dute pertsona, eta gainezkatu. Balio horien menpe geratzen da pertsona, eta leial jokatzeko du beroriekin. Atxikimendu honen bihotzean ez al da sumatzen, ilunpetan bada ere, Jainkoarekiko fedezko atxikimenduaren analogia edo hurkotasuna?

Jainkoaren presentziaren aztarna hauek biltzean, Gurutzeko San Joanen hitzak datozkigu burura: “Jauna, ene Jainkoa: Zu ez zara arrotza Zurekin harritzen ez denarentzat. Nola diote Zu aldentzen zarela?”.

II.- KRISTAU ESPERIENTZIAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Zailtasun eta iluntasun guztien erdian, Jainkoa hemen dago guban, gure artean, munduan. “Gizakia, bere bihotzean Misterioa duen izakia da, bera baino handiagoa den Misterioa duena” (H. U. von Balthasar). Misterio hau ezagutzera eman zaie gizakiei, eta kultura guztiz desberdinetan era desberdinetara eta jarrerara desberdinekin oroitzen duten erlijio desberdinak sortu dira. Juduen erlijioaren funtsezko jarrerara Yahverenganako esanekotasun leiala da. Islamismoak baldintzarik gabeko Alarekiko menpekotasuna azpimarratzen du gauza guztien gainetik. Hinduismoak jainkotasunaren eskuetan konfiantza osoz jartzea nabarmentzen du. Budismoak, norbere guraria ezabatzea Absolutuaren aurrean. Kristautasuna, fede, itxaropen eta maitasunaren bidez Jesu Kristori atxikitzean oinarritzen da.

Aldeak handiak diren arren, erlijio hauetan guztietan aurkitzen dugun erlijio-esperientziak egiturazko antzekotasun harrigarria erakusten du. Hala ere, egitura honen osagaiak desberdin gorpuzten dira tradizio erlijioso bakoitzean. Zeintzuk diren osagai nagusi hauek eta nola gauzatzen diren kristau-esperientzian aipatuko dugu orain.

Nahita uzten dugu alde batera Idazki honetan fede-esperientziaren erarik bikainena eta apartekoena: esperientzia benetan eta zuzenean mistikoa dena. Tomas santuak honela adierazten du: “Jainkoaren ezaguera experimental eta afektiboa”. Fededun batzuek lortzen duten eta fededunen elkarte osoarentzat aberasgarria den Jainko komunikazioaren maila da.

1. Jainkoaren presentzia jatorrizkoa

Jesu Kristorengan agertzeraz ematen zaigun Jainkoa, kristau-esperientziaren Muina izateaz gain, berorren Jatorria ere bada. Gure munduan dago Bera, gizakiengan, historian, betidanik eta betiko. “Harengan bizi gara eta Harengan mugitzen, eta izan ere Harengan gara” (Ap Eg 17,27 hur.). Bera hurbil dago. Baina, gizakiok ez diogu beti guban eta gure bidez azaltzen uzten. “Zu hurbil zeunden nigandik, baina ni urrun Zugandik; Zu barnean zeunden, neu nengoen neure barnetik kanpo” (San Agustin). Baina jartzen dizkiogun oztipoek ez dute Jainkoa mundutik botatzen. Guk Jainkoaren presentzia antzematea zaildu baino ez dute egiten, Jainkoa dela, alegia, pertsonak eta errealitatea eraldatzen dituen alderdi kontziente, historiko eta agerikoa.

Jainkoaren presentzia guban ez da inondik ere estatikoa, ezta apatikoa ere. Itsasertzeko hondartzak eta harkaitzak ferekatzen eta astintzen dituzten itsasoko uhinen antzera, Jainkoak etengabe bilatzen du gizakiarekiko elkartasuna, etengabe dei egiten dio, bere barneko eragozpenen eta kanpoko zailtasunen ondorioz bizi duen lozorrotik esnatu nahi du. Maite du eta agertu nahi zaio: “Ni maite nauena, nire Aitak maite izango du, eta nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio berari” (ikus Jn 14,21).

Berarenganako fedearen bidez, Jainko “temati” hau aitortu, onartu eta Berarekin bat egitean datza erlijio-esperientzia. Bat egite hau gertatzen denean, Jainkoa “egiazko den zerbait” bihurtzen da gizaki horrentzat. Jainkoa bere bizitzan Jainko izaten hasten da.

2. Jainkoak ematen du lehenengo pausoa

Jainkoarekin bat egitea dela, pentsa daiteke kanpotik, giza ahaleginaren azken saria. Ezagutzen ditugu, bizitzan zerbait absolutua bilatzen denbora asko eman ondoren, benetako Absolutua aurkitu duten pertsonak. Hauen ibilbidea kontu handiagoz aztertuz gero, errealitatea guztiz desberdina dela ikusiko dugu. “Pita luzea” utzi eta, arraina harrapatuta dagoela ikusi arte, kontu handiz tiratzen duen arrantzalearen antzera, Jainkoak jarraitu egin die, itxaron, zuhurki lagundu, beren frustrazio eta desbideratzeetan, bere Aurpegiaren alderdiren bat erakutsi dien arte. “Ezin da inor ere Nigana hurbildu, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen” (Jn 6,65).

Graziari buruz aritu diren eliz Kontzilioek betidanik azpimarratu dute Jainkoaren lehenetako hori salbameneren ekimenean. *Bekatariak, Jainkoaren graziak eraginda eta lagunduta* (Trentoko Kontzilioa), bere begirada Jesu Kristoren Jainkoarengana zuzentzen duenean hasten da bihozberritze prozesua. Pascalek esperientziaz ezagutzen zuen egia hau, Jesu Kristoren ahotan jartzen zuenean sinestekunari zuzendutako adierazpen hau: “Zuk ez ninduzuke bilatuko Nik aurkitu ez bazintut”.

3. Geure pertsonaren erdi-erdian ukituak

Jainkoaren agerkundeak Bera bizi den leku berezian eragiten digu: geure pertsonaren erdi-erdian. Harritua, hunkitua, liluratua eta, aldi berean, beldurtia den gizaki honek denbora behar du bere burua argitzeko eta gauza asko ordenan jartzeko. Baina atzeratu ezin duen eta atzeratzerik nahi ez duen zerbait dago: dei egiten dion Jainkoa ezagutzen du eta pozarren onartzen du. Amore ematen du, Jesus onartzeko bere esku dagoen guztia jartzen duen Zakeoren antzera (ikus Lk 19,1-9). Bizitzan gertatu zaion gauzarik garrantzitsua da. Benetako gertakizuna.

Ez da dena hor geratzen. Bere ardura eta egitasmo egozentrikoei, edota onenean, auzi humanitarioei, emana bizi izan den pertsona honek aldatu egiten du bere bizitzako oinarria. Aurrerantzean, bere bizitzako ardatz ez du bere burua izango. Ezta bere familia, gizartea edota zuzentasuna ere. Jainkoa da orain beraren Ardatza. Jainkoa Balio Nagusia. Bere bizitza gobernatzeko zuten balioen konstelazio osoa asaldatu egiten da aurkitutako Balio nagusiaren arabera. Balio horietako batzuk “irabazten” ateratzen dira, adib., otoitza eta pobreen aldeko zerbitzua. Beste batzuk galeran, hala nola, dirua pilatu edota ospea lortu nahia.

Bere zentrotik lekualdaturik, eta bere bizia aurkitu berri duen Jainkoagana ezin susmatuzko indarraz zuzendurik, bere burua horrela eskaintzen duen gizakia subjektu autonomo eta aske bezala duen duintasunean murriztu egiten duen liluraren biktima dela pentsa daiteke. Ez da horrela. Jainkoak ez ditu bere seme-

alabak txikiagotzen; alderantziz, beren askatasuna araztuz, gehitu egiten du. Ez da beren nortasuna desitxuratzen duen atzera pausoa fusio erako harremantara eramateko. Jesu Kristoren Jainkoarekiko bat egitetik sendoturik ateratzen da pertsona, gurari, askatasun eta erantzukizuneko subjektu izateko.

4. Bihotz berria gizaki berriarentzat

Jainkoa bizi deneko gizakiaren bihotzetik, «jainko-marea» honek bere alderdi guztiak, bere dinamismo guztiak, hartzen ditu. Beste irizpide batzuk, egi-tasmo batzuk, beste sentiberatasun bat, sortzen dira beragan. Gizaki berria sor-tzen da (ikus Ef 4,21-24). Izenaren aldaketarekin adierazten da eraldaketa hau, pertsonaren aldaketa hau, askotan Biblian. Abran, aurrerantzean, Abraham izango da; Jakob, Israel deituko dute; Simon, orain, Pedro da betiko.

Jainkoa agertzera eman izanaren ondorioz gizon eta emakume berri dire-nek bost gogo-jarrera sakon izan ohi dituzte ezaugarri.

4.1. Kristau-mezuaren ulermen biziagoa

Gure fedeak esperientzia sakonaren grazia jasotzen duenean, kristau-misterioak hizketan hasten dira. “Jesu Kristo gure Jaunaren barne ezaguera” (Loiolako San Inazio) azaleratzen da gugan. Museoetako gidari onek, oihaletan azaleko begirada distraituak antzematen ez dituen altxor ederrak aurkitzen la-guntzen diguten bezala, Espiritu Santua agertzen zaigu, geure fedearen misteri-oetan sartzera bultzatzen gaituen Gidari bikain eta bakar bezala. Espirituaren argira hobeto ulertzen ditugu, urratsez urrats, Gizakundea, Nekaldia, Berpiz-kundea, kristau-bizitza edota pobreen garrantzia. “Jainkoaren berri maitekorra” (Gurutzeko San Joan) lortzen dugu. Hainbeste alderditan, batzuetan fededuna-ren beraren begiradarako lehorra, eta baita arrotza ere, dirudien kristau-mezua, gure barruan girotu eta sustraitu egiten da, ezaguna eta berezkoa izango balitz bezala, bere izaera paradoxikoa eta interpelatzailea inoiz galdu gabe.

4.2. Erabateko konfiantza

Beren buruari emandako erdigunetik lekualdaturik, beren izatearen jabe ez direla konturaturik, eta etsipenean jausteko edota aurretik emandakoa berreskuratzeko tentaldi bikoitza gainditurik, Jainkoak bisitatutako gizon-emakumeek, ez “desjabetzeko” berezko tentaldia gaindituta, burutik oinetaraino ematen diote beren burua, beren iragana, beren oraina, beren etorkizuna, berai-entzat gauzatze bakar eta goren bezala, hau da, salbamen bakar bezala, ager-tzera eman zaien Jainkoari. “Zulatuak izan diren eskuetan, onartzeko eta be-deinkatzeko bakarrik ireki diren eskuetan, hainbesteko maitasunak zeharkatzen dituen eskuetan, espirtua ematea pizgarria da”, idatzi zuen bere heriotzaren aurreko egunetan Teilhard de Chardinek.

4.3. Berezko leialtasuna

Kristau-fedea esperientziaz bustitzen den heinean, hark eskatutako leialta-suna berezko bihurtzen da. Jainkoaren borondatea ez da, dagoeneko, koheren-tziaz eta boluntarismoz bete behar den agindu kategoriko hotza. Bihotzeko

onarpen naturala da. Fededunak bat egiten du 118. Salmoaren egilearekin: “Bai maite dudala, Jauna, zure legea; zure aginduetan dut neure atsegina; gauerdian jaikitzen naiz Zu gorestera, zure erabakiak zuzenak direlako; urre eta zilar asko baino hobea da niretzat zure ahoko legea”. Bere Aitaren borondatea betez janaritu zen Jesusen antzera (ikus Jn 4,34), bere fedea esperientzia sendo bihurtu duen fededunak bere bizitzari buruzko Jainkoaren egitasmoaren gauzatzean aurkitzen du (jakina, ez aurkakotasun, zalantza eta makaltasunik gabe) bere benetako janaria: bere ekintza eragiten duena eta bere jardueran iraunarazten ditona. “Giza jarduerarik berariazkoena eta egiazkoena Jainkoaren borondatearen onarpen librea da” (M. García Morente).

4.4. Maitasuna

Espirituak fededunagan gaurkotzen duen Jesusen Jainkoaren errebelazioa San Joanen adierazpenean jasotzen da: “Jainkoa maitasuna da”. Kristau-esperientziaz ukitutako fededunak ez du Jainkoa gure existentzia oinarritzen duen Errealitate guztiz trinko bezala bakarrik ikusten, batez ere gurekin bat egin nahi duen eta bere salbamena eskaini nahi digun maitasun neurrigabe bezala baizik. “Gizakia da Jainkoak, bera denegatik maitatu duen lurreko kreatura bakarra” (*Gaudium et spes*, 24. zenb.).

Sinestedunak onartu egiten du Jainkoaren maitasuna; eta gurasoen seme-alabarenganako maitasuna, berauen barnean, gurasoenganako maitasun bihurtzen den bezala, Espirituaren eraginez, Jainkoaren maitasuna Jainkoaganako maitasun bihurtzen da gugan. Jainkoak gugan isuri duen maitasunaz maite dugu geuk Bera. Jainkoak maite gaituela jakiteak Beraganako maitasunaren esperientzia sortzen du gugan. “Guk maitatzen dugu, Jainkoak maite izan gaituelako lehenik” (1 Jn 4,19).

4.5. Poztasuna

Jainkoarekin topo egitea poztasun itzel eta adieraztezinaren iturri da. Bere itxaropenik sakonenak aseak direnean sortzen da poz hori gizakiagan. Jainkoarentzat egina dagoen bihotzak Harengan du atsedean, bere bizilekua izango balitz bezala, Jainkoa mugagabea delako eta gizakiak berezkoa duelako mugagabeko izateko grina.

Zentzurik ezak, itxaropenik ezak, maitasunik ezak, ostu egiten digute poztasuna. Gure Jaun berpiztua aurkitzen duenak zentzua du aurkitzen, eta itxaropena; maite du eta maitatua sentitzen da. “1654ko graziazko urtea. Azaroaren 23a, astelehena... Gaueko 10:30etatik 12:30etara. Ziurtasuna. Ziurtasuna. Sentimendua. Poztasuna, Bakea... Poztasuna, poztasuna, poztasuna, pozezko malakoak”, idazten du B. Pascalek hunkituta eta kontu handiz bere egunkarian, Jau-naren “bisita” jaso ondoren.

5. Jainkoa “bizkarraldetik” eta ilun antzean ikusten dugu beti

Dena ez da poza Jainkoarekiko bat egitean. Kristau-esperientziak (bereziki mistikoenak) paradoxa hau erakusten digu: Jainkoaren presentziak eragindako poztasuna, haren faltak eragindako sufrimenduarekin artikulatzen dela. Jainkoa

gugan “dago” eta, aldi berean, “ez dago”. Jesusek berak sumatu zuen Jainkoaren “ez egote” hau, utzi egin balu bezala, isiltasun erara. Beharbada, esperientzia bera suma daiteke hurbil samarra dugun monje baten oraintsuko hitzetan: “Jainkoaren presentziaren bila etorri nintzen monasteriora, eta haren falta jasaten ikasten ari naiz”. Sufrimendu honi, beti birsortzen ari den egozentrismotik aldentzeko ezartzen zaizkigun sufrimendu arazleak gehitzen zaizkio bizitzan.

Fedearen adierazpen eta fruitu denez, kristau-esperientziak iluna behar du izan nahitaez. Esperientzia horretan sumatzen dugun Jainkoa agertzera ematen zaigu eta, aldi berean, ezkutuan gelditzen. Beronen presentzia “gutziz ukazina da, gutziz ziurra, baina ikusezina” (J. Martín Velasco). Agerpen gogoraraztea da, aipagarria, baina baita saiheskorra ere. Irteera liburuko testu batek (33,18-23) argitasun handiz adierazten du errealitate hau: Moisesek, Yahveren lagunak, Jainkoa ikusteko gogo sutsuaz, hauxe eskatzen dio: “Erakustazu, otoi, zeure aurpegia”. Jaunak erantzun zion: “Neure on gutzia igaroaraziko dut zure aurretik, eta neure izena hots egingo... Baina nire aurpegia ez zenezake ikus... Hona hemen leku bat nire ondoan; zaude zutik harkaitz gainean. Nire aintza igarotzean, harkaitzuloan sartuko zaitut eta nire eskuz estaliko, ni igaro arte. Gero, eskua kenduko dut, eta bizkarraldea ikusi ahal izango didazu; baina ene aurpegia ez daiteke ikus”.

Kristau-esperientziak berekin duen oinazea eta sufrimendua ez dira, ezta gutxiago ere, fededuna erakarri ondoren, beragandik bereizten den Jainkoaren arinkeria. Neurrigabekoak dira Jainkoaren aberastasuna, edertasuna, handitasuna eta ontasuna, baina guri hori gutzia dastatzea (sumatzea) bakarrik dago-kigu, inoiz ez harrapatzea eta, are gutxiago, horien jabe izatea. Gure barruko muina baino barrukoagoa da Bera eta, aldi berean, gure ikusteko eta ulertzeko gaitasunaren gainetik dago erabat. “Fedea berezkoa du ezaguera mugatua izatea” (Tomas santua). Giza bihotzak hobeto ulertu nahi du, gehiago maitatu eta bere presentzia bizitasun eta egonkortasun handiagoz gozatu. Gurari honetan mugatua sentitzea oinaze-iturri da, San Benitok zioenez, “Jainkoa benetan bilatzen duenarentzat”. Guk Bera “ez ikustearen” oinazea Jainkoaren presentziaren molde iluna da. Bera ezkutuan egote horretan ere agertzera ematen zaigu (ikus Is 45,15). Bihotza prestatzen digu, berau erakartzen duten sasiainko txikietatik garbituz. Jainkoa “ez ikustez” ia sufritzen ez badugu, galde diezaiogun geure buruari nolako erabakiz bilatzen dugun haren presentzia. Sinestedun handiek hasperen egin izan dute ilunaldi honetan. H. Bremondek otoitz honetan jasotzen du bere barruko atsekabe gutzia: “Nire gauean, nire hoztasunean, oihu egiten dizut, Jauna, bihotz-bihotzez, Zu Zeu nahiko zaitudala. Ezer sentitu gabe, ezer ikusi gabe noa zugana, baina banoa... Jauna, etor zakizkit larritasun honetan. Dena da zama niretzat... Zu etorriko bazina... Ni hemen nago; Zu hor zaude. Badakit! Fede hilaz dakit hori”.

Fede samindu honek, batzuetan, gure garaian hain maizkoa eta orokorra den zalantzaren proba pasatzen du. Kontzientziak, funtsezko ziurtasuna galdu gabe, zalantzaren astindua jasaten du krisialdian. Lisieux-eko Teresa bezalako santuek ere ezagutu izan dute gertakari txundigarri eta mingarri hau, eta adierazpen lazgarrietan kontatu dute: “Ilunaldiek, burla eginez, hauxe esaten didatela iruditzen zait: egin amets Sortzailearen jabe izango zarela betiko... Egunen batean ilunpeetatik atera zaitezkeela iruditzen zaizu. Aurrera! Aurrera!”

Jarrai heriotzaz gozatzen; baina ez zeuk itxaroten duzunak emango dizun heriotzaz, are beltzagoa den gauak, heriotzaren gauak, emango dizunaz baizik”.

6. Bekatari-esperientzia

Sinestedunaren esperientziaren argi apalei esker, dena desberdin ikusten da. Baita gure argaltasunak, leialtasunik ezak eta bekatuak ere. Horrela ulertzen dugu, nolako bekatari-kontzientzia zintzo eta bizia izan duten santuek, nahiz eta goi-mailako kristau-esperientzia bizi izan; gai horietan “oinezko garenontzat” neurritz kanpoko iruditzen zaigu kontzientzia hori. Baina ez da gehiegikeria; gogo-argitasuna baizik. Horregatik ez dute beren burua gutxien edo zigortzen errudun-sentimendu neurrigabeekin. Kontua zera da, antzeman egiten dutela santuek nolako aldea dagoen, Jainkoaren errealitatearen eta honek agintzen eta aldarrikatzen duenaren, eta hain sendoak eta atsegingarriak ez diren beste errealitate batzuetara neurririk gabe jotzen duen giza inkoherentziaren artean. Itxuraz garbi dagoen beirateak, ilunabarrean eguzkiak argi egiten dionean, berari itsatsitako hauts-orbanak islatzen dituen bezala, halatsu ikusten ditu Jainkoak biziki argizaturiko bihotzak, berari sufriarazten dioten opakutasunak eta nahi ezak.

Baina santuek eta Jainkoagana hurbiltzen diren guztiek giza bihotzaren inkoherentzia sumatzen dute; eta ez hori bakarrik; askoz biziago sumatzen dute, bekatariak berak ere beregana biltzen dituen Jainkoaren maitasun errukitsua (ikus Erm 5,8-10). Benetan, “(Jainkoaren) *indarra* (gure) *ahulezian agertzen da bete-betean*” (2 Kor 12,9).

7. Itsaso handian

Esperientziak argizaturiko fedearen bidez Jainkoaren handitasunean barneratzea, prozesu amaigabea da. Jainkoarekin bat egitea bidea da, ez helmuga. Berak gudan ere duen eta barruan dugun guraria mugagabea da. Bi arrazoi horiengatik, “Jainkoaren presentzia itxaropena da, ez bete-betean lortutako errealitatea. Presentzia horren etengabeko bilaketa da Berarekiko elkartasunaren barnean” (J. Mouroux).

Jainkoarekin bat egiteko giza nahia izan da mendeetan zehar kristau espiritubizitzaren gairik nagusienetakoa eta teologiaren arreta merezi izan duen puntua. Giza zientziek, beren aldetik, giza gurariaren azterketan sakondu izan dute; eta behin eta berriz azpimarratzen, gure gurariak berekin dituen itxaropen eta poztasunarekin batera, kontentagaitza dela funtsean, eta handiagoa eta hobe den zerbaiten egarri dela beti. Mundu honetan, giza gurariak ez du bere itxaropenak asetzeko gai izango den “gauza egokirik” (A. Vergote). Gizakia, gurari mugagabea duen izaki mugatua da. Giza jakintzak eta teologia bat datoz funtsean puntu honetan. Teologiak, Jainkoak gizakiaren bihotzean duen presentziaren arrastoa ikusten du, giza gurariaren egoera honetan. Jainkoaren guraria ere gurari nahitaez ase gabea da sinestedunon bizitzan. Jainkoak bakarrik arinduko du eta betiko bizitzan beteko, ilunpetan bila jardun ondoren, Hirutasunaren iturri agortezinean bete-betean asetzera deitua dagoen gizaki hau.

III.- KRISTAU ESPERIENZIAREN BERARIAZKO EZAUGARRIAK

Kristau-esperientzia eta beste erlijio batzuen berariazko esperientzia lo-tzen dituzten ezaugarriak aztertu ditugu aurreko kapituluan. Baina kristau-esperientziak badu bere berezitasuna, nahitaez nabarmendu behar dena. Zeintzuk dira ezaugarri bereizgarri eta alderdi nabarmenen horiek?

1. Kristau-fedearen esperientzia

Kristau-esperientzia fedearen alderdi bat da. Esperientzia horrek pertsonalagoa bihurtzen du gure fede argitsu eta bizia, burua erakartzen du, bihotzera hitz egiten, gure borondatearen atxikimendua gehitzen eta gure portaera eraldatzen. Fedea unean-unean edota orokorrean esperientziaz bustia geratzen denean, Jainkoagana bihurtzen da fededuna, eta esaten dio: «Besteei entzundakoaz bakarrik ezagutzen zintudan; orain, neure begiz ikusi zaitut!» (Jb 42,5). Esperientziaren distira ahul edo indartsuagoaren argira, agerian jartzen dira gure fedearen alderdi nagusi asko.

Esperientzia honek suspertu egiten du fedea; eta ez fedea bakarrik, baita itxaropena eta maitasuna ere. Erabat zehazki mintzatuz, gure bizitza teologal guztia esperientziak argizatzen duela esan beharko genuke. Ezin liteke bestela izan. Fedea, itxaropena eta maitasuna Espirituak gudan ereindako hazi dira, eta bizitza honetan bete-betean garatzeko eta Kristorekin batera behin-betiko bizitzan eraldatu eta burutzeko dei. Betiko bizitza, Jainko Hirukoitzaren esperientzia pozgarri eta maitekorrean datza. Haziak berekin ekarri behar du, hasikin gisa, sortzetik beretik, erne behar duen fruitua.

Ez daude, beraz, bi bide desberdin Jesu Kristogan agertzera emandako Jainkoa aurkitzeko: fedea eta esperientzia. Bide bakarra dago: fedea. Kristau-esperientzia fedearen heldutasuna da.

2. Jesu Kristori buruzko esperientzia

Hona hemen, beste erlijio-esperientzia batzuetatik gure fede-esperientzia argi eta garbi bereizten duen ezaugarri nagusi bat. Lehenengo kristau-esperientzia Jesusen jarraitzaile hurbilekoenen taldean garatzen da. Jainkoaren testigu berezi harekiko etengabeko harremanak liluratu egiten ditu eta gero eta estuago lotzen ditu berarekin. Urratsez urrats, galdera eta zalantzen artean, beren bizitzak zentzu berria hartzen du. Beste entzule batzuek miretsi baino ez dituzte egiten haren doktrina eta mirariak. Zera ulertzen dute: Jainkoa bera bidera bila atera zaiela Jesusengan, eta hau bide gertatzen dela Jainkoagana iris-teko.

Beren Maisuaren nekaldi eta heriotza trauma bat da beraiantzat, txunditurik eta lur jota uzten dituen trauma. Jaun berpiztuarekin topo egiteak, ordea, barkatu egiten die beren ahuldadea, sendatu egiten dizkie zauriak, eta sendotu lehendik Hark eman zien misioan; Espiritu Santuak beraiengan duen egintzak,

esperientzia berriaren argira irakurritako Idazkien hausnarketak eta Jesusek bere bizitza publikoan esandakoak eta egindakoak gogoratzeak, fede-aitormenera eramaten ditu, Tomasen hitzetan islatzen den fede-aitormenera: “Ene Jauna eta ene Jainkoa!” (Jn 20,28), eta, era berean, fede eraberritua eta benetako bihozberritzea dira. Ikusi, entzun eta ukitu izan duten haren testigu izatea (ikus 1 Jn 1,1-2) geroko bizitzaren ardatz bihurtzen da beraiantzat.

“Ikusi nauzulako sinetsi al duzu, Tomas. Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak!”. Jesusen hitz hauek Pedrok esandako beste batzuekin osatzen dira: “Maite duzue Jesu Kristo, gaurdaino ikusi ez duzuen arren. Eta, ikusi gabe beragan sinetsiz, esan ezin ahaleko pozez, poz distiratsuz, beteak zaudete jadanik” (1 Pe 1,8-9). Azaletik irakurrita, Apostoluen pazko-esperientziak beren fedea ordezkatu zuela pentsaraz dezakete hitz hauek. Ez du ordezkutzen, sendotu baizik, beraiengan eta beraien bitartez jarduten duen Bizidun bezala ikus dezaten. Bene-benetakoa denez Apostoluen fedea, gainditu behar dute zalantzaren tentaldia (Mt 28,17; Lk 24,38). Nahiz eta guztiz besteren ezina izan lehenengo testiguen pazko-esperientzia, gure egoerak ez du, funtsean, alde handirik beraiena-rekin. Fedea, ikusezina den errealitate baten ikuskera estalia da beti. Guretzat eta gure garaikideentzat, posible da “mundura etorri gizaki guztiak argitzen dituen egiazko argia” den (Jn 1,9) Jaun berpiztuarekin topo egitea, baina baldintza batekin: Jesusen hitza Jainkoaren Hitz bezala onartzeko baldintzarekin.

3. Esperientzia Espirituagan

Lehenengo kristau-belaunaldiaren fedea eta gurea Espiritu Santu beraren fruitu da. Fede hau biziberritzen duen kristau-esperientzia ere Beragandik dator.

Hain zuzen ere, Berak *gaurkotzen du* Jesu Kristo gure artean. “Espiritu Santurik gabe, Kristo iraganeko norbait da; Ebanjelioa letra hila da; Eliza, antolaketa hutsa; misioa, propaganda besterik ez; gurtza, oroipen magikoa; morala, esklaboen diziplina” (Hazim). Jesusen zeinu eta hitzek bizirik irauten dute historian bere Espirituaren eraginez. Honen bitartez, joan egin den Kristo, orain eta beti etorriko da berriren berri (ikus *Dei Verbum*, 8. zenb.).

Espiritu Santuak Jesusen pertsona eta mezua barneratzen laguntzen digu. “Jainko barnekoia” den Hark gaitasuna ematen digu kristau-agerpen edo errebelazioaren oihartzuna geure barnean entzun dezagun eta, horrela, beraren aberastasunak subjektiboki geure egin ditzagun. Berak Jainkoarekiko etxekotasuna eta Erreinuko balioekiko bizi-sintonia sentiarazten dizkigu. Jainkoa benetan Jainko egiten du guretzat. Jainkoaren seme-alaba garela sentiarazten digu. “Jainkoak bere Semearen Espiritua bidali du gure bihotzetara, eta Espirituak ‘Abba!’, hau da, Aita! dio oihuka” (Ga 4,6-7). Gure bokazioaren zintzotasuna dastarazten eta sentiarazten digu.

Hirutasunean Aitak Jainkoaren transzendentzia islatzen du bereziki. Se-meak historian txertatzea gauzatzen du. Espirituak, gure eta munduaren barruko izatea. Jainkoa transzendente besterik izango ez balitz, urruneko gertatuko litzateke. Historian txertatua bakarrik agertuko balitzaigu, eredu miresgari eta maitea izango litzateke, baina ez gintuzke barnetik mugituko Berari ja-

rraitzeko. Jainkoa barneko ere badugulako bere Espirituagatik, “berezkotasun berria” ematen digu, geure burua Aitari eskain diezaiozun, Semeari jarrai diezaiozun, anai-arreben zerbitzari izan gaitezen, mundua zaindu dezagun. Espiritu Santuak berezko eta sortzezko egiten du gure kristau-bizitza. “Espirituaren indar salbatzailea, Jainkoa giza espirituan girotzean eta hau giza inmanentziaren bidez jainkotzean datza” (A. Vergote).

Kristauok bakarkako eta jainkozko Espiritua jaso dugu Jaun berpiztuagandik, eta Espiritu hori kristau-esperientziarako arrasto ekintzaile eta harrobi agortezin bihurtzen zaigu. Bere goi-argia arreta arduratsuz hartzea eskatzen digu, bihotz garbia argi horri gudan sarrera emateko, eta eskuzabaltasuna argi horren esanera bizitzeko.

4. Jainkoaren esperientzia Jainko eta Aita bezala

Kristogan, Espirituaren eraginez, Aita Jainkoarekin topo egiten dugu. Erlijio guztietan, Misterioa, Absolutua, Errealitate gorena gizakiagan indartsu sartzan dela adierazten du erlijio-esperientziak. Erlijio profetikoetan Errealitate hau Pertsona da: Jainkoa. Hori gertatzen da gure fedean: fededunen esperientziaren laguntzaz, munduan, gure garaian, gure bizitza pertsonalean eta gizartearenean dagoen Norbait bezala antzematen, sentitzen eta bizitzen du fedea Jainkoa. Gorago aipatu dugun bezala, presentzia honek gainezkatu egiten du gizakia, markatu, interpelatu, hautaketa handi honen aurrean kokatzen du: “bere bizia galdu” ala “salba dezatela onartu” (ikus Mt 10,39).

Baina Jesusek bere hitzetan eta bizitzan agertzerik eman digun Jainkoa Aita-aurpegia duen Pertsona da. Ez da, besterik gabe, Absolutua. Jesusen Aita eta beraren seme-alabatzakoa onartzen duten senide guztien Aita da. Maitasun hutsez giza familia sortu duena da, bere Aurpegia Jesusengan erakusteko sortu ere, eta bere osotasun betea betiko bizitzan emateko. Bere aurpegian aitalialtasun etenezina eta ama-samurtasun eta -erruki agortezina distiratsen duena. Senideei buruzko erantzukizun larria eta ahulenen zainketa berezia gure esku uzten duena. Espiritua laguntzera datorkigu, Aita gisa onar dezagun Jainkoa eta senide gisa elkar onar dezagun.

5. Fede-elkartearen baitan bizitako esperientzia

Kristau-esperientzia bakarkakoa eta elkartekoa da. Pertsona bera da presentzia pertsonal eta aitatiar horrek ukitua eta bustia. Baina fededuna, bizi duena ulertzeko gakoak eskaintzen dizkion eliz elkarteko kide da. “Esperientzia, presentzia eta interpretaziozko sintesi aktiboa da” (P. Ricoeur). Gurea, “kristau-fedearen ardatz nagusiez egituratutako esperientzia da” (J. M. Imizcoz). “Partaide izan gabe sinestea” da gure garaiko tentaldia. Norbere kabuz edo “kartara” bizitako fedea guztiz bat dator gaurko indibidualismo amorratuarekin. Baina eliz erreferentziarik gabe fededuna nahasia eta galdua legoke. Kristau-errebeldioak eskaintzen dizkion uste sendoek lagundu egiten diote bere esperientzia “eratzin”, itxuratzen eta kristau-esperientzia handiaren barnean kokatzen. Fede-elkarterik gabe, Elizarik gabe, fede pertsonala pobretu egiten da eta hondoratutako itsas ontziaren hondakinen antzeko bihurtzen; era berean, fe-

dearen loratzea den kristau-esperientzia itxuragabetua, zirpildua eta desnaturalizatua geratzen da, elkarteko beste testigu batzuen esperientziarekin alderatu gabe eta arduradunen “kalitate-kontrolik” gabe. Eliza da kristau-esperientzia bereizteko eta balioztatze berezko lekua.

Baina fede-elkartea ez da beharrezkoa bereizteko eta kontrastatzeko baka-rrik. Beharrezkoa da, baita ere, fededunak Jaunari dagokion guztia ulertzeko eta dastatzeko grazia merezi gabea jasotzeko presta daitezen. Jainkoaren Hitza entzuteak, Eukaristiaren eta Penitentziaren liturgi ospakizunek, eliz taldeek, hartutako zerbitzu apostolikoek eta fedearen argira hartutako familia eta gizarte-konpromisoak giro egokian jartzen dituzte kristauak, Espirituak Jainko kristauaren ohiko edo ezohiko esperientzia komunika diezaien. Hau gertatzen denean, Paulorekin esan dezakegu: “Nire ustetan deusek ere ez du ezer balio Kristo Jesus ene Jauna ezagutzearen dohain paregabearen aldean. Kristogatik dena galdu dut... Hura irabaztearren... Kristo nahi dut ezagutu, neugan haren piztueraren indarra nahi dut sumatu eta haren oinazeetan partaide izan... Ez dut esan nahi hori lortu dudarik edota helmugara heldu naizenik; baina lehia bizian ari naiz ea eskuratzen dudarik, Kristo Jesusek ni neu beretzat eskuratu ninduen z gero” (Flp 3,7-12).

Kristau-elkartea, azken batean, irizpide eta harrobi izateaz gainera, gure kristau-esperientziaren jasotzaile ere bada, munduaren aurrean zeinu eta testigu izateko misioa egokiago betetzen duelako, munduarentzat sinesgarriago egiten duten “hainbat eta hainbat testiguz” (Heb 12,1) bermaturik.

6. Esperientzia munduan

“Jainkoak giza bizitzan bakarrik ematen du aditzera bere burua. Baina Jainkoa da adierazpen hori egiten duena. Sinesteduna, adierazpen hau irakurtzen dakiena da” (M. Gelabert). Kristau-esperientziak ez du munduarekiko inkomunikaziorik eskatzen, harekiko harremana baino, neurri batean edo bestean. Bertan aurkitzen ditugun errealitateetan (izadia, giza harremanak, zientzia, maitasunezko zeinuak, familia, fede-elkarte jakina, zuzentasuna bilatzea), hor islatzen da, beti erdi-ilunetan, Jainkoaren presentzia. Gure artean bizi den Jainkoa errebelatzen duten “sakramentu modukoak” dira; azaldu gabe errebelatu ere. Haren presentzia gogoratzen dute; gure fedea zirikatzen dute, sakramentu moduko horiek ikus ditzagun; eta aurkikuntza sano honetarako dei egiten digute. Hauxe da sinesgabe eta sinestedun askoren zoritxarra: elkar janaritzen duten gure garaiko kultura-baldintzen eta geure bihotzaren aurkakotasunen eraginez, zeinu hauek opakatu bihurtu zaizkiela. Gaitzaren gurrpil hau ongia- ren gurrpil bihurtzea giro egokia sortzea da, kristau-esperientziaren txinparta pizteko. Horretarako beharrezkoa da, ordea, maila apaletan bada ere, aldeko kanpo-baldintzen eta barne-jarrerara zabalen arteko “konplizitate” eratzea.

7. Jesu Kristo, “gure fedearen iturburu eta betetzailerik” (ikus Heb 12,2)

Nazaretoko Jesusen esperientzia zeharo bakarra da. Jainkoaren Seme izateak, Aitaren pareko izateak, eragina du Jesusen giza kontzientzian, seme-

kontzientzia bizi, eskerroneko eta kontsolagarria eman baitzion, Berak Yahverengana jotzeko erabili zuen hitzean adierazten duenez: “Abba!” (Aita). Hona hemen Itun Berriko hitzik mamitsuena, bertan antzeman dezakegulako Jesusen azken misterioa.

Bete-beteen duen Espirituaren gidaritzapean (ikus Lk 4,1), Jesusen seme-esperientzia hazi egiten da bizitasunean eta argitasunean, Legea eta Profetak entzunez, bere eta herriaren bizitzako gertakizunak interpretatuz, Aitaren giza esperientzia sakontzen doan neurrian. Bere erabateko konfiantza eta seme-esanekotasuna hedatu egiten dira. Argi eta garbi adierazten da hori bere otoi-tzean (Mk 1,35; Lk 6,12; etab.).

Jesus “senide askoren artean Lehenseme izan zedin” (Erm 8,29), Jainko Aitaren ezkutatze eta isiltzea ezagutu zituen nekaldian eta gurutzean. Gurutziltzatu «abandonatuaren» bakardadea (Mk 15,34) Jainkoaren misterioari dagokiona da. Bere Aita Jainkoaren esperientziaren eklipse misteriotsu hau da Jesusen probarik gorena eta sufrimendurik handiena. Seme izatearen esperientzia da bere bizitzaren euskarria eta bere misioaren eragingarria. Hori gabe Jesus erabat babesgabe eta lur jota sentitzen da. Bere seme-alabenganako maitasunagatik, bere Semea iluntasunaren menpe eta etsipen-tentaldian dagoen giza izatasunaren sotorik ezkutuenetara jaisteia izan da Jainkoaren nahia.

Mateo eta Markosek era gordinean erakusten digute Jesusen “abandonu” hau; Joanek, alderantziz, Epaile eta benetako Seme bezala aurkezten digu Jauna gurutzean, eta bere nekaldia maitasunez egindako eskaintza aske bezala. Bi ikuspuntuok kristau-ulermenean uztartzen dira eta gure kristau-bizitzari buruzko irakaspenak jasotzen dituzte.

Jesusen seme-kontzientziatik sortzen da Jainkoaren Erreinuaganako grina (ikus Mt 4,17). Batez ere bere bataiotik aurrera, Jainkoaren Erreinu iragartzea, gero eta nabariagoa den bere presentziaren zeinuak agertzeraz ematea eta ikasleen artean bere balioak lantzea, dira Jesusentzat bere bizitza betetzen duten misioa. Honako uste sendo hau ezinbestekoa da Jesusek hots egindako Erreinuaren esanahiaz jabetzeko: Jainkoa, bere Aita, guztion Aita ere badela. Jesusen esperientziaren muina ez da seme-izatea bakarrik; senide-esperientzia ere bada. Jainko Aitagandik sortua den gure senidetasuna iragartzea eta gauzatzea da Jesusen sentiberatasunaren eta jardueraren nerbioa. Eta senidetasun hori zikinduta eta profanatuta dagoenez anai-arreba askoren bidegabeko desberdintasunaz, axolagabekeria hotzaz eta bazterketaitsuaz, senidetasuna berreskuratzea izango da bere ministerioan bizitza oinarritzen duen benetako aukera.

Jesusek duen seme eta senide izatearen, eta Jainkoaren Erreinuaren zerbitzu-misioaren esperientzia dira beti benetako kristau-esperientzia ororen paradigma goren eta eskuraezina, baina argitzailea eta sustatzailea den paradigma, *molde kristologikoa* (H. U. von Balthasar) duena eta izango duena. Esperientzia honek, bakarka zein elkartean, egitera behartzen gaituen eraldaketa onartzea, eta esperientzia hori besteei komunikatu eta transmititzeko premia sentitzea, kristau-fedearen kode genetikoari dagozkio.

IV.- EGUNEROKO KRISTAU ESPERIENZIA

Fededun askok, kristau-esperientziari buruz egin dugun deskribapenaren puntu batzuetan (II. eta III. kap.) islatua ikusiko du, neurri batean, bere burua. Baina beharbada gehiago izango dira, nolabaiteko arduraz, beren esperientzia pobregoa eta oinarrizkoagoa dela pentsatuko dutenak. Esperientziarik gabeko fedea bizi dutenaren ondorioa aterako dute batzuek, edota zalantzan jarriko dute, agian, beren fedearen benetakotasuna.

Asko eta asko dira aurreko kapituluetan azaldutako esperientzia baino apalagoa, orokorragoa, ohikoagoa eta egunerokoagoa bizi dutenak, baina esperientzia hori ere benetako da, nahiz eta kontu handiz landu beharra izan. K. Rahner teologoak gogoratu du testu gogoangarri batean. Transkriba dezagun:

«Era ez esplizituan, Jainkoaren esperientzia egiten du gizakiak, eta onartu egiten du Jainkoa funtsezko giza jarrera batzuen ahalbide bezala. Jarrera horietako bat baldintzarik gabe *itxarotea* da, esperientziaren ikuspuntutik, egoera etsigarria denean. Beste jarrera, alaitasuna mugagabeko *alaitasunaren* agintzari bezala bizitzen denean nabaritzen da. Bestea, *erabateko leialtasunean* eta *eskaintzan* gauzatzen da, nahiz eta bere bikotearen argaltasunak bermatu ezin baldintzarik gabeko erantzuna. *Betekizun etikoa* erabateko koherentziaz bizi denean ere gorpuzten da, nahiz eta, itxuraz, koherentzia horrek gu hondamendira eramanean. Begi-bistako egiten da, bestalde, gizakiak *egiaren zorrotasuna* baldintzarik gabe esperimendatzen eta bereganatzen duenean. Gizabanako izatearen eta gizarteko kide izatearen arteko desakordio gaindiezina jasateko gauza denean ere egiaztatzen da funtsezko kristau-jarrera, alderdi biak elkarganatuko dituzten *azken zentzu eta zoriontasunean* itxaropena jarritz, nahiz eta itxaropen horrek, itxura batean, oinarririk ez izan».

1. Kristau-esperientzia ezkon eta famili bizitzan

Fededunen bizitzaren arlo guztiak “atzean Jainkoa duten” esperientzia apal baina benetakora zabaldurik dauden bizigune dira. Arlo horietako bat ezkon eta famili bizitzako esperientzia da.

Maitasun-esperientzia guztietan, zehatzago ala lausotuago, ezkontideen maitasun-trukea gainezkatzen duen gauza adieraztezin bat dago azpian. Elkarrenganako maitasun honen sortzaile baino gehiago zorioneko hartzaile sentitzen dira. Senar-emazteek zera sentitzen dute argiago edo ilunago: haranean elkartzen diren ibaien sorburua mendi garaietako elurtegiatan dagoen bezala, Maitasun handiago bat dagoela beren elkar-maitasunaren jatorrian. Bikote sinestunari ez zaio kostatzen uste hau onartzea, sentitzea eta eskertzea.

Aitatasunaren eta amatasunaren esperientzia are deigarriagoa da beharbada. Bikote batek bere maitasunaren haurrari begiratzen dionean sehaskan, ez dute harroturik adierazten sentitzen dutena, gauza miragarri hura “beren egin-tza” balitz bezala; alderantziz, miresmen hunkigarriaz zera galdetzen dute: “Etor ote daiteke gugandik altxor hau?”. Bikote hauek, normalean, ez dute “haur bat *egin* dugu” esaten, “haur bat *izan* (jaso) dugu” baizik. Beren fedea lokarturik dagoenean ere, bat egiten dute miresten duten kreatura hori Jainkoaren do-

haina dela eta eskerrak ematera gonbidatzen dituela iragartzen dien harekin. Eta batere sinestodunak ez badira, beharbada Chestertonen hitz haiek esan diezazkiekegu: “Sinesgabearentzat, hauxe da unerik txarrena: eskerrak eman beharra sentitu, eta nori eman ez jakitea”.

2. Kristau-esperientzia lanean

Ezin dugu, besterik gabe, lana idealizatu; izan ere, askorentzat jasan beharra dagoen eta lanetik kanpoko arrazoiengatik jasaten den zama astuna da: bizi-iraupena dela, familia, sustapen pertsonala, betebeharra. Baina, aldi berean, ezin dugu ahaztu, beste asko funtsean bere lanarekin identifikatzen dela eta, lanaren bidez, baliagarri eta emankor sentitzen dela. Ekintzarako gogoia eta zerbitzuko espiritua erakusten dituzte, neurri batean behintzat.

Eguneroko bere lanean, egoki motibatutako fededunak jakin eta senti dezake, bere jarduerak Jainkoaren egintza sortzailea adierazten eta luzatzen duela, eta beronek sostengatzen duela etengabe. Eguneroko bere jardunean, beraz, bat egin dezake liturgi otoitzeko gorazarrearekin: “Jainkoa hil egin dela dioena / betor argira eta ikus beza, / esna jarraitzen duen Jainkoaren / zeregina ote denez mundua. / Haren lekua ez da basamortua, / ez dago bakardadean ezkutatua. / Galdetzen duenari erantzun, / han dela bizirik gure Jainkoa / gizakiak lan egiten duen lekuan / eta maite duenaren bihotzean”. Munduaren eraikuntzan Jainkoaren laguntzaile sentitzea, eta mundu hori Sortzailearen jarraibideen arabera hedatzen eta garatzen gogotsu laguntzea, berezko eta duintasunezko esperientzia izan daiteke fededunarentzat.

Laneko izerdi, sakrifizio eta eragozpenek Jaunaren berrerospena gaurkoztzen dutela ere senti dezake fededunak eta, horregatik, Pauloren hitzekin bat egin: “Gorputzean jasaten ari naizen atsekabeak Kristoren atsekabeei eransten dizkiet haren gorputza den Elizaren alde” (Kol 1,24). Lanaren gogortasunak gorosten duen zentzua aurkitzen du horrela.

Fede biziak kristau langileari lagundu ahal dio eta lagundu behar dio, bere lanaren bidez, Jainkoak munduan gizakion behar asko konpontzen duela sentitzen. Giza familia zaintzen duen Jaunaren ardurari lotuta egotearen poza senti dezake eta Jainkoaren dei larria entzun, lan honen fruituak, bere eskuzabalatasunagatik, oinarrizko ondasunik ere ez duen gizaki askorengana helaraztera.

3. Gaixotasunaren eta heriotzaren esperientzia

Gaixotasuna esperientzia traumatikoa da, bereziki osasuna gurtzen duen eta patxadarik gabeko bizitza azkarra bizi duen mundu honetan. Eten handia da; luzatzen denean, nahasmendua sortzen du lehenengo, gero asaldura eragiten, beranduago pentsarazi egiten du; errealitate asko ikusteko eta baloratzeko modua aldatzen du. Gaixoa beste lagun batzuekiko menpekotasunaz eta bizitzaren hauskortasunaz jabetzen da.

Egoera estuak bere gorputzaren aldaketei gehiegizko arreta eskaintzea darraren arren, gaixotasunaren inguruan hainbat galdera sortzen da berarengan:

zergatik hau niri?, sendatuko ote naiz?, zer gertatuko ote da nirekin, nire familiarekin, nire egitasmoekin?, hau al da bizitzea?, ze zentzu du bizitzak? Gaixotasunean asko pentsatzen du pertsonak.

Larritasunez beteriko galdera hauek, gutxienez hasieran, itxi egin ditzakete erlijio-esperientziaren bideak. Baina sarritan fededunak, krisialdiaren ostean, esperientzia horretatik hurbil dagoen zerbait ulertzen du bizitzan: ez gara geure iraupenaren oinarri. Gaixotasunak agerian uzten du gizakiaren argaltasuna. Hortik abiaturik, fedeak baliabideak eskaintzen dizkio, bere egoeran benetako fededun-esperientzia diren konfiantza eta eskaintzaz markaturiko topaketetarako.

Lehenago edo beranduago, gaixotasunak heriotzaren atarira eramaten gaitu. Heriotza, naturari dagokion gertaera soil bat besterik ez omen dela eta, hutsal bihurtu nahi litzatekeen arren, hor dago bere seriotasun eta trinkotasun gogorraz. Gizakiak badaki hil beharrak ez diola uzten “mundu mugatu honetan lasai bizitzen” (E. Tierno Galván). “Benetako auzia hauxe da: zertan izango den nire kontzientzia, zurea..., guztiona, gutako bakoitza hiltzean” (M. de Unamuno). Gaixotasunaren eta hurbil den heriotzaren aurrean, aparteko garrantzia dute Vatikanoko II. Kontzilioan azaldutako galderek: “Zer da gizakia? Zein da, aurrerapen guztien gainetik, indarrean dirauten oinazearen, gaitzaren, heriotzaren zentzua? Zertarako prezio hain altuan lortutako garaipen haiek? ... Zer dago mundu honetako bizitzaren ostean?” (*Gaudium et spes*, 10. zenb.).

Gaixoaren egoera guztiz makalak, ematen dizkieten lasaigarriek, etxekoan disimulu-jarrera diskretuak, gizartean sumatzen den heriotza guztiaren azkena delako irizpideak..., desitxuratua utzi dezake batzutan heriotzaren une existentziala. Baina beti geratu ohi da tartetxo bat, hurbil dela sumatutako heriotza onartu ahal izateko. Fededunak, Elizak behar bezala lagunduta, arrazoiak eta argibideak aurkitzen ditu onarpen horretarako bere fedean, eta bera aurkitzen deneko egoera larria dela medio, benetako esperientzia gertatzen da. Konfiantza osoz Jainkoari eskaintzen dio bere bizia eta amaigabeko bizi betea itxaroten du beraren maitasunetik. Jesusen antzera, hauxe dio: “Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia” (Lk 23,46).

4. Fedearen testigantzaren esperientzia

Fedea transmititzea ez da fededun izateak koherentziaz eskatzen duen ondorio hutsa. Geure fedea bizkortzen eta suspertzen duen zeregina da, esperientziaz aberasten duena. “Fedea, emanez sendotzen da” (Joan Paulo II.a, *Redemptoris missio*, 2. zenb.). Transmititzailearengan sakonago sustraitzen da, honela, osorik identifikatzen delako harekin. Katekista eta monitore askoren esperientziak hori erakusten du. Hauxe dugu famili katekesiaren alderdi on eta itxaropentsuenetako bat: beren fedea ganorarik gabe eta nolabait bizi izan duten aita eta ama ugarik, sentitu eta pertsonalizatu egiten duela fedea beren seme-alabei transmititzeko eginkizunean. Transmisio horretan fede-esperientzia bizi dute beren erara.

Fedearen testigantza karitatearen esparrura ere zabaltzen da. Beste batzuei zuzenean fedea transmititzeko beren burua gai edo prestatuta ikusten ez duten,

eta behartsuen aldeko zerbitzuzko ekintzetan (adib., Caritasen bidez) jarduten duten fededunek, baliagarri izatearen poza bizitzeaz gain, zerbitzu horretan beste Norbait azaltzen dela sentitzen dute, argiago edo lausotuago, eta sinesteko dituzten arrazoiak sendotzen dizkiela; indar ematen diela zailtasunetan; hobeto ulertarazten diela, Jainkoa “makalen aldeko joera” duen Maitasuna dela; beraien “Jainkoaren eskua” direla ikusarazten diela.

5. Otoitzaren esperientzia

Fededunaren esperientziaren toki bakarra otoitza dela pentsatzeak gizon egin zen Hitzaren erlijioarekin bateraezina den espiritualismo arriskutsua erakutsiko luke. Baina gure fedea bizi izandakoaren distira eta indarra izan dezan, otoitza aparteko eta beharrezko gunea ez dela esatea, zoritxarreko oker handia izango litzateke. Erlijioaren zientziek zalantzarik gabe baieztatzen dute otoitzaren nagusitasuna erlijio-esperientzian. “Erlijioak otoitz egiten du, pentsamenduak pentsatzen duen bezala” (Novalis). Liburu Santuak leku nabarmena ematen dio, zalantzarik gabe, gure fedearen jarduera zintzo honi (ikus Lk 11,14). “Arnasketa bizitzarako bezain beharrezkoa da otoitza federako” (R. Guardini).

Otoitzean, finago egiten da Jainkoarekin topo egin nahia. Otoitzean, Jainkoa bakarrik dela Jainko aitortzen dugu. Otoitzean, geure eta besteen salbameneren iturria ez garela gu, Bera baizik, sentitzen dugu. Otoitzean, geure bizitzaren bereizketa egiten dugu eta geure bihotzean Jainkoarekin lehian dauden sasi-jainkoak agerian uzten ditugu. Otoitzean, barneko Maisuak Jainkoaz gozatzea ematen digu, kristau-mezuarekiko sintonia, Erreinuko balioekiko kidetasuna. Otoitzak, azken batean, antzaldatu egiten du gure fedea, bertan esperientzia islatuz. Otoizlari guztiek otoitzean bizi izan dituzte beren fededun-esperientziaren une sendo eta sakonak.

6. Kristau-esperientziaren desitxuratzea

Gauzarik bikainenak ere, gizakiagan hezur mamitzen direnean, desitxuratu egiten dira sarritan. Normalean fedearen alderdi garrantzitsu bat nabarmentzen dute. Baina alderdi hori larregi nabarmentzean, kutsatu egin dezakete fededun-esperientzia osoa. Bada, beraz, erlijio-esperientziaren patologia ere. Desitxuratzeko eta faltsutze hauetaz jabetzeak hauetatik babesten eta, kontrastez, benetako kristau-esperientzia hobeto ezagutzen lagunduko digu.

6.1. Joera arrazionalista

Arrazoa asko baloratzen da gure kulturean; honek benetan arrazoizkoa eta egiaztagarria dena bakarrik onartzeko joera du; horrela, arrazoa elementu kritikoki bihurtzen da, eta sineste guztien epaile zorrotz. Sentsibilitate hau sinestunengan ere ikusten da. Horren eraginez, gure fedearen arrazoizko aurkezpena nabarmentzeko joera dugu, bere edukien zehaztasun eta aurkezpen arrazoituaz zuzen arduratuz eta bizipenari dagozkion eta fededunaren jarrerak berezkoak dituen beste alderdi batzuei balioa kenduz. Alde bateko joera honen ondorioz, gure fedearen alderdi afektiboa eta, ondorioz, beraren eragin-indarra pobretu egiten da nolabait.

6.2. Murrizketa etikoa

Jokaera moral koherentea kristau-fedearen beharrezko eta berehalako ondorio da. Honek ez digu konpromiso etikotik ihes egiten uzten, bizitzan txertatu gabeko intimismo erlijiosoaren alde. Baina konpromiso etikoa gure fedearen ardatz bihurtzen ere ez digu uzten. Mundua Ebanjelioaren egitasmoaren arabera eraikitzeko eta erlijiotik aldentuta dagoen gizarteari kristau-fedearen eraginkortasun eraldatzailea erakusteko nahiaz, kristau askok gure fededun jarreararen muina jokaera moralera eramateko tentaldia sentitzen dugu (bereziki, arlo sozialean). Horrela desorekatutako fededun-bizitzak, funtsean Jesu Kristogan doan ezagutzera eman zaigun Jainkoari erantzutea den fedearen jatorrizko izaera desitxuratzen du eta fedearen esperientzia baztertzen, bere garrantzia gutxietsiz. Fededun-esperientziarik gabe, konpromiso morala erraz bihur daiteke betebeharraren betetze nekagarri, ahaleginak alde batera uzteko tentaldiarekin. Benetako fededun-esperientziak egonkortasuna eta iraunkortasuna ematen dizkio gure konpromiso moralari.

6.3. Sentimenduaren neurritz kanpoko handitzea

Pertsona guztia hartzean, kristau-esperientziak gure afektibitatea ere ukitzen du. Poz, errespetu, sugar edota miresmeneko sentimenduak osagai garrantzitsuak dira. Baina ez dira muina, Jesu Kristoren Jainkoaren presentziaren kontzientzia bizi eta beroa baizik gure bizitzan.

Schleiermacherek “Absolutuaren menpekotasun-sentimendu” bezala azaltzen zuen erlijioa XIX. mendean. Afektibitatearen liluraz jabeturik dago gure aldi hau, baina fededun-esperientzia sentimendu berezien artean sartzeko joera du sarritan. Eliz mugimendu batzuek ez dute erabat baztertzen tentaldi hau. Jarrerara afektiboen garrantzia gehiegi nabarmen dezakete eta gehiegikeriaz eragin. Behin baino gehiagotan nahastu egin daitezke horrela oso desberdinak diren bi gauza: “Jainkoaren esperientzia afektiboa”, alegia, eta “esperientzia afektiboaren Jainkoa”. Jainkoa, Jainkoa da. Jainkoa ezin da murriztu nahitaez subjektiboa den esperientzia afektibo hutsera. Gure sentipenetatik harago dago Jainkoa beti.

Alderdi afektiboa nabarmentzen duten eliz mugimenduek, hala ere, Jainkoa poz-iturri dela gogorarazten digute era osasuntsuan, eta sentiberago bihurtzen gaituzte Espirituaren egintzarako. Baina barruko sugarra eta Jainkoa ez dira gauza bera bezala hartu behar, eta ez du esan nahi sugar hori beti normaltasun psikologikoaren seinale denik.

6.4. Intolerantzia iluminista

Jainkoaren presentzia gizakiarengan eta bere bizitzan presentzia sendoa da, Gurutzeko San Joanek dioen bezala, “arima muin-muinean” ukitzen duelako, hain zuzen ere. Mugimendu erlijioso batzuek, izaera batzuek eta jarrerara kolektibo batzuek, muturrera eramanez gero, desitxuratu egin dezakete esperientzia erlijiosoa, eta jarraitzaileak beren fedea temati eta indarkeriaz ezartzen saiatzera eramanez.

Indarrean dauden fundamentalismo erlijiosoak erraz samar doaz aldapa horretatik behera. Horien bertsiorik gogorrenak erabat banatzen dituzte fedearen arloa eta arrazoiarena, eta baztertzen dute erabat autokritika beren formulazio doktrinal edo moralentzat. Jarrera honetatik sortzen da, fedearen aurrean izan daitezkeen beste jarrera batzuekiko gogortasuna.

Bertsio leunagoetan, kristau-elkartean ere aurki ditzakegu fedearen testigantza eta proselitismoa zuzen bereizten ez dituzten gizabanakoak eta taldeak. Zeharkatu behar ez diren lotsaren eta kontzientziaren mugak bortxa ditzaketan presioak beren taldean jasaten dituzten pertsonak egon daitezke. “Gizakien askatasuna errespetatuko duzue, Jainkoak berak errespetatu egiten duelako” (Joan XXIII.a).

Dena dela, taldeok zera gogorarazten digute: fedearen proposamena ez dela solaskidearentzat interesgarria izan daitekeelako egindako aurkezpen hutsa. Berekin darama Jainkoaren deiaren izaera interpelatzaila (ikus Mt 19,16-26). Ezin da izan, beraz, ez koldarra ezta lotsatia ere. Erantzun erabakigarria eskatzen duen proposamena da. Proselitista izateko edo tentsioa eta aurkakotasuna sortzeko beldurra lar erraz estal daiteke intimitatearen eta askatasunaren errespetua bezalako arrazoi baliotsuez, eta fede, konpromiso, apaiz-ministeritza edota erlijioso-bizitzarako eskaintza ausarta egitea eragotzi diezagukete.

6.5. Jarrera pasiborako joera

Kristau-esperientzia ez dute gizon edota emakume fededunek “egiten”: jaso egiten dute. Hil edo bizikoa da onartzeko jarrera. Baina fededun-esperientziaren lege hau gaizki uler daitekeela ere irakasten digu Elizaren mendeetako historiak. Jainkoari harrera ona egiteak ez du esan nahi bertute aktiboak (zerbitzua, sendotasuna, iraunkortasuna) landu behar ez ditugunik, geure burua Maitasunari eskaintzen diogulako. Guri ez dagokigu jasotzea bakarrik. Horretarako aurretik geure burua prestatu egin behar dugu, gure eragileak araztuz eta Jaunaren borondatea leialtasunez geure eginez. Prestasun honek aszetika, neurritasuna eta norbere burua menperatzea eskatzen dizkigu. Jarrera pasiboa benetako kristau-esperientziaren zorigaiztoko karikatura da.

6.6. Jarrera boluntarista

Inguratzen gaituen pentsamoldean sartua dago, gizakiak eskuratzen dituen helburuak bere lorpen direla argiago edo lausotuago uste izatea. Gure fedesperientzia kutsa dezake. Jarrera horrek, “Jainkoarekin topo egitea eragiteko ordez, eragotzi egiten du. Jainkoa Misterio absolutua da. Misterioa desagertzearekin batera, desagertu egiten da Jainkoa bera ere” (M. Gelabert). Zeruko sua osteko Prometeoren joera ez dugu guztiz arrotza. Benetako oztopoa da Jainkoaren grazia jasotzeko. Jainkoak bere burua eskain diezagun, ona da gure borondatea; baina ez da gomendagarria boluntarismoa. Zurrundu egiten baititu afektibitatearen iturriak, eta afektibitate gabe, boluntarismoak nahi duen leialtasuna ariketa hotz eta nekagarri bihur daiteke. Fededun zintzo askoren esperientzia erlijiosoak beharrezko du “Espirituaren naturaltasuna”, sinesten dugun Hura dasta dezaten.

V.- KRISTAU ESPERIENZIA BERRITURANTZ

Uste sendoa hartzen dugu abiapuntu: Espiritu Santuak beste inork ez du suspertzen eta balioztatzen fede-esperientzia. Giza ahalegin burutsu eta garbie-nak ere ez dira gauza bere kabuz Jainkoaren dohain honen izpi bakar bat sor-tzeko. Hala ere, izan gaitezke Espirituaren laguntzaile eta, izan ere, izan beharra dugu, gure Elizan hain erabakigarria den fedearen bizitasunerako ahalegin honetan.

1. Eliza osoarentzako deia

Bere fede-esperientzia suspertzeko, Elizak zintzotasunez aurre egin behar dio gizarteak eta elkarteak berak bizi duen benetako egoerari. Gure mundu eu-roparrean Jainkoari buruzko ikuspegia ilundu izana kezkarria da, eta tentagar-ria. Gertakari horrek, ordea, Jaunak bere Elizari egiten dion deia dakar, eta Elizak ezin dio ezentzunarena egin. Baldintza desegokietan, geure fededun-esperientzia aberastu eta garbitu egin behar dugu, egoerari egokitutako espiri-tualtasunaren bidez.

Gaurko egoerak *konfiantzaren* espiritualtasuna lantzeko eskatzen digu, ez *baikortasunaren* espiritualtasuna. Orokorrean, gaurko egoerak eta etorkizunari begiratzeak ez dute baikortasunik pizten gure baitan. Ez dirudi, ezta fedez begi-raturik ere, hemendik 25-40 urtera gauzak hobeki joango direnik. Badugu, hala ere, arrazoirik konfiantza Jainkoaren asmo salbatzaile aldaezinean jartzeko eta, beldurrak oro gaindituz, asmo salbatzaile hori orain arte izan duen eta aurreran-tzean izango duen gauzatzeko modua Jaungoikoaren ardurapean uzteko.

Gaurko kultura eta gizartearen egoera horren bidez, *leialtasunaren* espiri-tualtasuna eskatzen dio Jainkoak bere Elizari, eta ez *arrakastaren* espiritualta-suna. Ez da denbora asko, harriak Abrahamen seme-alaba bihurtzen zirela. Gaur egun, Abrahamen seme-alaba asko harri bihurtzen dela ikusten dugu. Je-susek ere jasan zuen proba hau. "Obeditzen ikasi zuen" (Heb 5,8). Gero eta ar-giago ulertu zuen leialtasuna eskatzen ziola Aitak, ez berehalako arrakasta. "Arrakasta ez da Jainkoaren izenetako bat" (M. Buber).

Gure garaia bizi behar dugun *zerbitzu ilunarena* da; beste garai batzuetako handitasun eta aginte-indarrik gabe egina, ez beti ondo ulertua eta, maiz, ezta eraginkorra ere, jendeak Jainkoa aurkitzeko ahaleginean.

Espiritualtasun *apala* bizitzeko deia jaso dugu, ez, ordea, *errudun* sentia-razten gaituen espiritualtasuna. Ezin dugu esan gure bekatuei erruz jartzen di-ola gizarteak fedeari hainbeste eragozpen eta oztopo. Oztopo horietako asko kul-turak jarritakoak dira eta hori ez dago gure esku. Onartzen dugu lehengo eta oraingo geure erantzukizuna, gauzak horrela direla aitortzen eta zuzenbidera-tzen dakitenen apaltasunez eta, orobat, historiaren eragile nagusia Jainko mai-tetsua dela dakitenen baretasunez.

Gauza asko egiteko dagoela ohartzeak eta ondo egin ezin dugula ikusteak urduri jartzen gaituen garai honetan, *jardute barearen* espiritualtasuna gauzatu

behar dugu. Ebanjelizatzeko grinak Jesusi ez dio lokartzen uzten, baina baretasuna ere ez dio kentzen. Ez da gaixo guztiak sendatzeko, gosetu guztiak asetzeko, gatibu guztiak askatzeko, desbideratutako guztiak erakartzeko irrikak itoa bizi. Ez zuen dena egiteko asmorik izan. Erreinua betetzen hasten ari zela erakusteko egintza esanguratsuak egin zituen. Ekintzaren kalitatea bilatu behar genuke kantitatea baino gehiago.

Kanpoan babesik gabe egoteak sinestedun askorengan, apurka-apurka, barneko basamortua sor dezakeen historiako aldia honetan, *Elizak fededunei lagun egitea*, senide-harremanak izango dituzten elkarreak sortzea, arduradunak senideengandik hurbil egotea, munduan eliz esparru sanoak, “ekologikoak” sortzea eta horrelakoak izan daitezke gure espiritualtasunak behar dituen jarrerak.

Kanpokora begira bizitzea nagusitu zaigun garai honetan, ezinbestekoa dugu *barnera begiratzen* lagunduko digun espiritualtasuna: ez intimista; bai, ordea, gizakiaren barne espazioak landuko dituen eta egindako zauriak sendatuko dizkion espiritualtasuna.

Saihestezina da Jainkoak krisialdi honetan zer esan nahi digun galdetzea. Eta horri erantzuten saiatu ondoren, beste galdera batzuk ere egin ditzakegu: nola landu kristau-esperientzia kristau motibatuengan; nola piztu esperientzia hori arinegi dabiltzan sinestedunengan; nola eskaini halako esperientzia beren buruari galdera sakonak egiten dizkioten sinesgabeai.

2. Vatikanoko II. Kontzilioaren jarraibide orokorrak

Kontzilioko Eliz Artzainek, kristau mezua Eliza osoari aurkeztean eta gizaritari eskaintzan, onartu zituzten aukerak nabarmentzen dituzte Kontzilioko analista adituek.

Kontzilioak, beste ezer baino lehen, sinestedunentzat nahiz sinesgabeentzat *fedea eta elkarrizketa-esperientziaren* hizkera erabiltzea aukeratu du; nahiago izan du jarrera ulerkorra eta pastoral, indarrean zegoen zorrozkeria eta kondenazioa baino. Aukera hau Kontzilioko hainbat Konstituziotan islatzen da. Are eta zehatzago honako honetan: “Kontzilioko Eliz Artzainen Mezua gizaki guztiei”.

Arrazoiketa zorrotza alde batera utzi gabe, Kontzilioak, era berean, *sinbolo eta testigantza* erako hizkera argia hautatzen du. Sinbolikoa aukeratuz, gizakiaren eta munduaren errealitatea Jainkoaren osotasuna gogorarazten eta aurrera erazten duen zeinu bezala aurkeztea proposatzen da. Era berean, Elizaren misterioa sinbolo bibliko handien bidez eta hauen inguruan (Jainkoaren herria, Kristoren gorputza, Espirituaren tenplua...) aurkezten da. Testigantza erako aukerak, bere aldetik, estilo aitortzailea ematen dio hizkerari berari: “Guztiongatik hil eta berpiztutako Kristok, bere Espirituaren bidez, gizakiari argia eta indarrak ematen dizkiola sinesten du Elizak, bere bokazio gorenari erantzun diezaion; eta gizakiei zerupean ez zaiola eman beste izenik salba ditzakeenik. Era berean, giza historia osoaren gakoa, muina eta jomuga bere Jaun eta Maisuagan dagoela sinesten du... Berbera baita, atzo, gaur eta beti” (*Gaudium et spes*, 11. zenb.).

Kontzilioak nahiago izan du konbentzimenduaren hizkera erabili, aurkezpen polemikoarena baino. Misterioari begiratzeko esaten digu, ez arrazionalki aztertzeko (*Sacrosanctum Concilium*). Jainkoaren dohainak eskertzera eta azkenenganaino eramatera bultzatzen gaitu (*Ad gentes*).

Kontzilioko Batzarrak kristau-mezuaren *proposamen* garbia eta atsegina aukeratu du munduari aurkezteko eta saihestu egin du inposaketa itxura oro eta funtsean mesfidati edo ezkor izan daitekeen jarrera oro.

Kontzilioko aukera hauek jarraibide guztiz argiak dira Elizaren pedagogia bideratzeko fedea piztean.

3. Nola landu kristau-esperientzia fededun motibatuengan

3.1. Bere osotasunean balioetsiz

Kristau askok espiritualtasuna gutxiensten du, kristau-esperientziaren gauzarik balioetsu eta erabakigarriena izango omen litzatekeen zerbitzuzko konpromisoa bultzatzeko. Halakoentzat, “sinestea konprometitzea” besterik ez da. Beste batzuentzat, berriz, Jainkoarekin bakarka barru-barruan bat egitea da kristau-esperientzia, eta esperientzia eta otoitza gauza berbetatzat jotzen dute. Elkartearen eta behartsuen aldeko zerbitzuzko maitasun konpromisoa, gehienez ere, kristau-esperientziaren ondorioa eta eskakizuna izango litzateke, eta ez horren osagai. Oker hori konpondu egin behar dugu. “Kristau-espiritualtasunaren arazoa... Jainkoa beste inor Jainko ez dela esatean egongo da, alde batetik... eta, bestetik, Jainkoak mundua geure ardurapean utzi duela... eta anai-arreben aurpegian azaldu nahi izan duela sinestean” (J. Martín Velasco).

3.2. Otoitz egiten ikasiz eta irakatsiz

Otoitza kristau-esperientziaren leku pribilegiatua eta ezinbestekoa bada, ez dirudite batere koherenteak otoitz egiteko orduan ikusten ditugun hutsune larriek. Katoliko askok eta askok gabezia handia du: hamarkada luzetan igandeko Eukaristian parte hartu ondoren eta eliz konpromisoren baten batean ere lan egin ondoren, ez daki ia une larrietako premiazko otoitza baizik edota buruz ikasitako otoitza baizik egiten; biak dira balio handikoak, baina ez nahikoa. Otoitz egiten ikastea benetako premia da. Ez da aski otoitzaren beharra behin eta berriz aipatzea. Otoitz egiten irakatsi beharra dugu. Talde otoizlariak eta benetako kristau-otoitzerako eskolak ugaltu egin behar ditugu geure artean. Ariketa osasuntsu hau ikasteko grazia izan dugun guztiok dugu otoitz egiten irakasteko erantzukizuna. Otoitzaren iturriak, arrazoiak, eraginak, aldiak, tentaldiak, lehortasunak eta arintasunak ezagutzea kristau guztion ondare da.

Gure fedearen Misterio Nagusia gertaberritzen duen liturgiarako sarbidea ere benetako otoitz-eskola da. Ongi oihukatutako hitzak, apaltasunez eta egiaz egindako zeinuek, “norbera” bakarka ari dela uste izan gabe, “elkarrekin” ari garela jabetzeak, gure sentiberatasuna ukituko eta esnatuko duten abesti ondo aukeratuek Espirituaren presentzia eragilea agerian jarri behar dute elkarrekin biltzean eta, orobat, fededunen jarrera otoizlariaren hezitzaile indartsu izan behar dute.

3.3. *Bihotza prestatuz eta araztuz*

Jainkoaren benetako presentzia gugan eta gure munduan ezin da onartu, ezta aitortu ere, gure bihotzarentzat absolutu txiki eta barregarri bihurtzen diren egitasmo, gurari, beldur, grina eta jokaeretatik askatzeko gogorik ez dugunean. Beharrezkoa dugu neurritasun ernea “etxea txukun” edukitzeko, nahiz eta txukuntasun hori ere erlatiboa izan beti.

Jainkoaren presentziak, era berean, pertsonetikiko harreman jakina eskatzen du: bestea menpean hartzeko grinak, liluratu nahiak, besteekin kontuz ibiltze mesfidatiak, nagusitasun-konplexuak, hoztasunak, itxurakeriak edota besteak erabiltzeko asmoak markatu gabeko estilo zintzoa izatea, eskuzabala, apala, beroa, fidakorra eta doakoa izango den estiloa, hain zuzen ere. Jarrera haiek Jainkoa ezkututzen duten laino itxia sortzen dute, eta Jainkoa senideen aurpegiaren ikustea galarazten digute. Hauek, ostera, gure harremanen bihotzean bertan antzemateko prestatzen gaituzte.

Barne-bizitza eta kanpoko bizitza arteko oreka ere lagungarri da Jainkoaren esperientzia izateko. Gaur egungo bizitzak askotan ez digu uzten oreka horri eusten. Dena eskuratu nahia eta “denera iristeko” desioa pizten du gaurko bizitzak. Erritmo zalapartatsua ezartzen dio gure bizitzari, atsekabea sortuz erdizka egin dugunagatik eta larritasuna egiteko dugunagatik. Baldintza hauetan, Jainkoa hurbil egonagatik ere, gu urrun gaude. Hobe da gutxiago egitea, baina sosegu handiagoz egitea. Oreka hori, ordea, barne-bizitzaren aldetik ere hauts daiten. Kanpoko bizitzak hainbeste lagun blokeatzen duen hipersentiberatasunetik ihes egiten laguntzen dio barne-bizitzari, eta gure “arazotxoak” “arazotzar” bihurtzeko joera saihesten.

3.4. *Testigu handien irakurketa*

Gauza gutxi pizten du gugan Jainkoaren nahia zabaltzeko eta sakontzeko irrika, gure fedearen testigu handien aitormenak irakurtzeak baino. Beraiengan Jainkoaren agerpen gero eta argiagoa, agerpen horrek fededunagan eragiten dituen harrera eta zalantzak, sortzen duen poza eta dakarren iluntasun atsekabetua ikusteak kristau-itxaropenik zintzoenak suspertzen ditu gugan. Ibilbide hauetan, geuretan sumatzen duguna bera ikusten dugu, maila goragokoan izanik ere. Arrano hauen hegaldia ikustean hegan egitera ausartzen garen txoritxoentzako ikusten dugu geure burua. Agustin, Asiseko Frantzisko, Loiolako Inazio, Avilako Teresa eta Gurutzeko Joan eta horrelakoen testigantzek, edota gure garaikideak diren Bonhoeffer, Hirutasuneko Isabel, Edith Stein, Joan XXIII.a eta beste askoren testigantzek bihotza sutu egiten dute gozoki, bertan indarririk sakonenak askatuz. Jainkoarekin bat egiteko eginak gara, “Berarekin elkarriketa izateko pentsatuak” (H. U. von Balthasar).

4. Nola esnatu fede ahuleko kristauak

4.1. *Beren bizitzako esperientzia batzuei izena eman*

Aipatu ditugu dagoeneko norberaren bizitzan, familian, gizartean eta eliz bizitzan izan ohi diren esperientzia horiek. Ohiko nahiz ezohiko gertakariak

Jainko biziarekin harreman bizian jartzera daramatzate fede ahuleko hauek. Adimen urriko seme nahiz alabaren haurdunaldia onartzea, erraza baina inmoralala den irabaziari uko egitea, gure etorkizunerako ondorioak negatibo izango direla jakinik ere, arrazoia duenari arrazoia ematea eta horrelakoak Jainkoak “bisitatzen” dituen egoerak dira. Pertsona hauek normalean ez dute barne-baliabiderik sentitzen dutena interpretatzeko edo gertatzen zaiena Jaunaren deitza hartzeko. Halakoentzat begirada pastoral edo apostoliko arretatsua izatea lagungarri dugu egoera horiei antzemateko eta pertsona hauengandik hurbil egoteko, baita bizi dutena sinesmenaren argitan ulertzen laguntzeko.

4.2. *Sarbide erako pastoraltza*

Erljio-esperientzia ez da ikasten, ingelesa edo igeriketa ikasten den bezala. Sarbidea egiteko prozesua behar dugu. Sarbideko lagunak geugan badugun horretaz jabetzen laguntzen digu. Erljio-esperientziari dagokionez, gugan eta gure munduan dagoen Jainkoaren Misterioaren presentzia sortzaileari zabaltzen laguntzen digu sarbidea egiteak. Jainko biziaren Iturriak gugan egindako barne-putzuarekin bat egiten duen kanpoko uraz ureztatzen du sarbideko lagunak gure espiritua. Zerbitzua eskaintzen du pertsonak eta Jainkoak era zuzenagoan elkarrekin bat egin dezaten, elkarketa hori eragozten duten Jainkoaren irudi desitxuratuak uxatuz. Espiritu Santuarekin lanean ari da, fededuna Jesu Kristorekin aurrez aurre elkar dadin, fedearen iluntasun sutsuan, Jainkoaren Hitzaren argiak argiturik. Jarrera egokiak lantzen eta biziera desegokietatik aldentzen laguntzen du.

Sarbidea egin duenak beste inork ez dezake sarbidea egiten lagundu. Gainera, pedagogia jakina behar da hori egiteko. Ezin zaie denei multzoan eginarazi sarbidea. Prozesu labain honek bakoitzarekiko arreta pertsonalizatua eskatzen du. Ez ote gara eginkizun hori alde batera uzten ari, lehiakoagoak bai baina hain beharrezkoak ez diren beste eginkizun batzuei heltzeko? Beharrezkoa utzi eta gauza larriei heltzea pastoralak ongi ezagutzen duen tentaldia da. Bakoitzari eskaintako arretak denbora ez ezik, konpromiso pertsonal handiagoa ere eskatzen digu. Ez du inork besteen bihozberritzea eragiten bere bihotza erakutsi gaibe.

4.3. *Fedearekin bat ez datozen bizierak utzi*

Jaunarekiko elkarketa bizia izateko zailtasunak sarritan bizimodu sakabatu, azaleko eta hiperaktibotik datozela eta gure begiak itsutzen dituzten eta sentiberatasuna sorgortzen duten grinak zirkulutik jaiotzen direla aipatu dugu. Jesu Kristo, alafede, gizakiaren bila dabil aspergabe, Berak batzutan zeharkatzen du zirkulu hori eta poliki-poliki zulatu ere bai, zulatzen du «danbatekoz». Gehienetan, ordea, beharrezkoa da, graziak eraginik, gizakiak berak aurrez biziera desegoki horiek alde batera uztea. “Jainkoa ikusteko bihotz garbia” (Mt 5,8) behar baita. Beharrezkoa da inguratzen eta esklabo bihurtzen gaituen bekatuarekiko lokarriak hausteko ausardia izatea. Adorea behar dugu hausкета hori egiteko. Bekatuaren morrontzak emandako “bigarren mailako atseginen” bila ibiltzeak eta erabaki sendoak hartzeko kemenik ezak –hau garai honetako gaitza– “sine die” atzeratzen dute gure bihozberritzea. Atsekabea, errudun-sentimendu mingotsa eta egonezin itzela berekin du maiz horrelako bizierak. Ez da zaila,

hala ere, egonezin horren barruan Jaunaren deiari antzematea. Ez litzateke gauza makala izango kristauei honela interpretatzen laguntzea.

4.4. *Baztertuen aldeko zerbitzua*

Txiroak, gaixoak, sufritzen dutenak *Jaun Gurutziltzatuaren presentzia ezkutua* dira (J.-M. R. Tillard). Ondorioz, halakoei geure zerbitzuzko laguntza eman baino lehen, fedez begiratzen saiatu behar dugu. Jainkoaren hitzen argitan, gure fedea Jesus bera ikusten du halakoengan goseak, egarriak, biluzirik, gaixotua, preso (ikus Mt 25,34 hur.). Seme-alaba ahulak maiteen dituen Aita Jainkoak horien zoritxarraren erantzule egin gaitu. J. Moltmann teologoak dioenez, oso antzekoak dira Jesusen honako bi esaldi hauek beren egituran. Batak hau dio: “Zuek (apostoluak) onartzen zaituztenak neu onartzen nau” (Mt 10,40). Eta besteak hau dio: “Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten” (Mt 25,40). Hona hemen ahaztezinako bi ezaugarri Jaunaren jarraitzaileentzat.

Osasunaren eta ondasun material eta sozialen mahaian ez dagoen jendeagan Jauna era pribilegiatuan baldin badago, halakoengana hurbiltzeak, halakoak zerbitzatzek, errukiz eta zuzentasunez halakoekin bat egiteak Jesusen Jainkoaren “eskueran” jarri behar gaitu era berezian. Fedea hoztu zaienek, halako zerbitzu zintzoan konprometitzea dute kemena berreskuratzeko biderik egokienetakoa. Ez dute ausardia espiritualik eginkizun ebanjelizatzaile edo liturgikoetan konprometitzeko; bai, ordea, behartsuen aldeko (adib., etorkinen aldeko) zerbitzu eliztar nahiz zibikoetan sartzeko. Halako konpromisoak fedearen ikuspegitik duen zentzu betea antzematen laguntzea izango da pastoral pedagogiaren lana. Zeregin hauetan konprometitzen diren kristauengan fedea maiz suspertu eta eraberritzen dela erakusten du esperientziak. Konpromiso hau beren fedean motibatuago dauden beste kristau batzuekin buruz buru bizi denean, konpromiso honek fedean duen eragina sakonagoa da. Bataiatu askok bide honetatik sendotu du geroz eta makalago egiten ari zitzairen fedea.

4.5. *Herri-debozioak onartu eta araztu*

Bere urritasun eta anbiguotasun guztiekin, herri-debozioa erlijio-esperientzian oso aberatsa den arrastoa da. Santutegiek, kofradiek, erromesaldiek, bederatziruarekin eta horrelakoek afektibitate suspertzen dute, eskuzabaltasuna eta sakrifizioa sortzen eta igandeko Eukaristian igandero parte hartzea eta horrelako konpromiso sendotatik aldentu samarra dagoen gizataldea fede elkarteari lotua mantentzen dute. Herri-debozio hauetako batzuen azpian dauden fedeformulazioek ez dute beharrezkoa den orekarik. Sarritan, eragiten duten erlijiosentipena ez da Ebanjelioarekiko jarrera koherentean gauzatzen. Ez da irudipena Elizak egin dezakeen bereizmenetik aldentzeko edo erlijio-arloan gero eta kultura-gertakari pobreako bihurtzeko arriskua.

Ezin ditugu fede-oinarria duten adierazpen hauek ezegokitzat eta desbideratutzat gutxietsi. Halako debozioen balioak aitortzea, kristau elkartearen barruan duten autonomia esparrua errespetatzea, kristau-talde hauekin eta beren buruzagiekin ohiko harremana izatea adierazten du hori guztia onartzeak. Ia erabateko erlijio-gabezia elkortutako lurrian baino erlijiotasunaren gatzeg elikaturiko lur jorian hobeki finkatzen eta hazten den zuhaitza da, izan ere, fedea.

Baina beren adierazpen eta ekintza guztiak utzikeriaz onartzea ere ez da bidezkoa. Bereizmen lasai eta ulerkorra izan behar dute elkartetik, baina, aldi berean, benetakoa, argia eta tinkoa. Eta, batez ere, fedean hezten saiatu behar dugu, bizi dutenetik abiatuz, oraindik aurkitu ez dutenera zuzen daitezten. Hortik eratorriko den fede araztuak gure munduan erlijio babesik ezari aurre egiteko hain garrantzizkoa den esperientzia kutsuari eutsiko dio.

5. Nola esnatu esperientzia hau sinesgabe artega zintzoengan

5.1. *Funtsezko giza esperientzien bihotzean*

“Erlijio-esperientzia giza esperientzia osoan gertatzen da. Bereiz daitezke biak; ez, ordea, banandu” (P. Tillich). Kristautasuna, errealitatea eta historia fedearen ikuspegitik interpretatzea da.

Giza esperientzia orokorrean eta erlijio-esperientzia ez dira banandutako bi mundu. Pedagogia on batek hauxe eskatzen digu: Jainkoa programatu gabeko eta ezusteko bideetatik askatasun beteaz ager daitekeela onarturik beti, sinesgabeek gurekin konpartitzen duten giza esperientzian hondoa uki dezagula eta beraiekin batera zer jasotzen duen eta Norengana jotzen duen irakurtzeko prest egon gaitezela.

Esperientzia honetako osagai askok kristauok Jesu Kristogan errebelatutako Jainkoarekin identifikatzen dugun Misterioa eta Absolutua aditzera ematen du. Aurkitzen dituen gauzak deskribatzen eta azaltzen dituen gure ezagutzak berak ere auzi batzuekin topo egitean ezin dituela ulertu ikusten du: zergatik da den guztia? Gure nahi mugagabearen eta gure gaitasun mugatuaren arteko aldeak gurari horren esanahiari buruzko galdera egitera garamatza. Edertasunaz jabetzeak zirrara hunkigarria sortzen du gudan, Misterioaren aurrean dugun jarrera zirrargarriaren antzekoa. Unean uneko premiek estutzen ez gaituztenean, geure izate pertsonala bera ere ulergaitz egiten zaigu: Zergatik naiz? Zertarako naiz? Gure harreman pertsonal sakonetan (maitasunezko, adiskidetasunezko harremanetan), harreman horiek tinkotzen dituen oinarriari buruzko galdera dago. Bestearen izatearen aurrean dugun erantzukizun absolutu eta saihestezinak ere ezinbesteko lotura moral horren azken sustraiari buruzko galdera dakarkigu. Erabat zoriontsu izan nahiak, gure bizitzari zentzua eman beharrak eta gure bizitza alferrik ez galtzeko eta bizitza hori lorpen bihurtzeko gogo biziak gure espiritua erne jartzen dute eta Jainkoaren Misterioari zabaldutako norabidean bideratzen dute, galderak eraginez bada ere.

5.2. *Testigantza*

Irakaskuntzaren bidez eskualdatzen da doktrina. Jokaera morala ikasbide edo etsenplua eman ez eskualdatzen da. Fede-esperientzia testigantzaren bidez eskualdatzen da bereziki. Horregatik, “*martirien odola* (testigu gorenaren odola) *kristau* (berrien) *hazia da*” (Tertuliano).

Zertan dago gure fedearen testigantzaren indar berezia? Ez testiguaren sendotasun eta tinkotasunean. Hau izaki hauskorra baita eta beragan Jainkoaren indarrak distiratsen baitu. Honako honetan dago testigantzaren indarra:

testiguak bere izatea bera konprometitzean eta bere testigantzaren oinarri den Pertsonaganako leialtasunaren berme bezala eskaintzean. Testigantza ematean, Jainkoa Jainko bezala aitortzen du eta Kristo Jaun bezala, bere burua ardatz harturik ibiltzeari uko egin dion eta bere bizitzaren muina Jainkoagan eta haren Kristogan jarri duen pertsona bezala agertzen da. Horregatik, ez dago beste giza errealitaterik Jesusen Jainkoa giza bizitzaren Balio gorentzat hain era konbentzigarrian isla dezakeenik.

Testigu indibidualak pertsonen arteko harremanean du bere duintasun bikaina eta eginkizun ordezkaezina. Testigantza publikoaren berariazko eragilea, ordea, elkarte da. Elkarreak Jesu Kristo bere Jaun bakartzat onartzen duenean, iraunkortasunez otoitz egiten duenean, anaitasunez bizi denean kide ahulenak bereziki zainduz, inguruko gizartean zerbitzari bezala jarduten duenean eta bere fedea lotsarik gabe iragartzen duenean, deigarri ozena gertatzen da gizartearen erdian. Espiritu sentiberenetan harridura jatorra eragiten duen *kontrasterako elkarte* (G. Lohfink) bihurtzen da. Beheragoko mailan, gizartean beste era batera bizi daitekeela erakusten duen elkarte alternatibo bihurtzen da. Horregatik, profetikoa da elkarte, adiera bikoitzean: munduko gizagabekeriak salatzen ditu eta beste era bateko mundua, ezberdina, hobe, gizatiaragoa eta Jainkoaren bihotzarekin lotuagoa iragartzen du. Elkarte Erreinuaren seinale bihurtzen da.

Hala ere, tamalgarria da halako seinalek, oro har, gure garaikideak hain gutxi mugiaraztea. Elkarte txiki batzuk, eta baita elkarte nagusien jarrera batzuk ere, miresten dituzte, baina beren bizitzan ez dira interpelatuak sentitzen, fedearen aurrean duten jarrera itxi eta axolagabeak. Kalitate bereziko zeinuek (adib., Kalkutako Teresa eta haren alabenenek) hunkituko lukete gure garaiko jendea, baina beste inolako zeinuk ez. Zeinuaren ezina? Zeinuak neutralizatzen dituzten kontrazeinuak? Halako zer bait badagoela aitortu behar dugu apalki. Hala ere, ez dezagun ahaztu Jesus ere bere bizitza publikoan atxikimendu orokor eta iraunkorrik sortu ez zuen Zeinu garbia izan zela. Askoren begiak kulturaren eta gizartearen egoerak ilundurik egotea da zailtasun nagusia. Kanpoko zeinuak emititzen duen uhinak pertsonaren barruan Jainkoaren Presentziak sortutako uhinarekin sintonizatzen duenean, orduan bultzatzen du zeinu horrek bihozberritzera. Gaur, kanpoko uhinaren harpena blokeatu egiten du lehen aipaturiko egoerak. Egoera horrek ezartzen dion isiltasunera “makurtzen da” Jainkoa bera. Gaurko garaia, alderdi horri dagokionez, iluna da. Ez dakigu zenbat iraungo duen. Hala ere, hor da Jainkoa eta, askatasuna behartu gabe, egoera honen zirrikituetatik azaleratzen da, Berak nahi duenean eta Berak nahi duen moduan. Bitartean, fededun ugarik “otoitz egiten du, zuzentasunez jarduten du, maitasuna gauzatzen du eta Jainkoaren Erreinuaren zain dago” (D. Bonhoeffer).

5.3. Jainkoa existitzea nahi izatea

Ez da arraroa Jainkoa existitzea nahi luketen sinesgabeak aurkitzea. Alde batetik, ezin dute sinetsi, baina, bestetik, ez zaie eroso egiten beren sinesgabatasuna. Nahi hau elkarrizketa hurbil eta abegitsuan janaritzuz gero, Jainkoagana zuzen dezakeen ibilbidea martxan jar daiteke. “Jainkoa behar duenak eta, horregatik, nahi eta maite duenak baizik ez dezake aurki Jainkoa. Jainkoa ezagutu ahal izateko, lehenbizi irrikatu egin behar da, haren gose eta egarri izan. Suhar neurrigabeaz haren bila dabilenak beste inork ez du aurkituko”. “Jainkoagan

sinestea, Jainkoa existi dadin nahi izatea da, Jainkoa gabe ezin bizi izatea” (M. Gelabert). Hona hemen fededun bihotza barru-barrutik gehien pozten duen gauzetako bat: sinesgabetasunaren laino trinkotik Jesu Kristo gure Jaunagako fedearen argitasun ilunera doan ibilbide pertsonalean testigu hurbil eta apala izatea.

BUKAERA

Gure fede-esperientzia berritzea, Idazki honen helburu berezia ez ezik, Garizumaren eta kristau bizitza osoaren helburua ere bada. Testu hau argigarri eta sustagarri izango al da betebehar honetan. Garizuma aldi oso egokia da ibilbide honetan aurrera egiteko. Jainkoaren Hitzaren entzute arretatsuak, bakarkako eta elkarteko otoitz ugariak, liturgialdi honetan bihozberritzera eta bataioko graziaren berritzera berezi zuzendutako Eukaristia maiz ospatzeak, Elizak eskatutako baldintzetan jasotako Barkamenaren Sakramentura damuturik eta konfiantzaz hurbiltzeak, gure ondasunak eskuzabalez erdibanatzeak eta penitentzialdiari dagokion neurritasunak sendatu egingo dituzte gure zauriak, indarberritu egingo gaituzte, gure fede-sentiberatasuna piztuz, bekaturako gure joerak suntsituz eta Pazko Misterioa fede argiz, itxaropen gaztetuz eta maitasun sutsuz ospatzeko prestatuz. Bere ama izatearen esperientzian, bere Semearen Misteriora gero eta gehiago zabalduz, “fedearen erromesaldian aurrera egin zuen” (*Lumen gentium*, 58. zenb.) Maria izango dugu bidean gidari, eta arnas emaille bikaina gure fedearen heldutasunerako. Berak irits diezagula bere Semeagandik “alaitasunez eta bakez betetako fedea” (Erm 15,13).

Iruñe eta Tuteran, Bilbo, Donostia eta Gasteiz
2003ko martxoaren 5a
Hausterre-eguna

- ✘ **Fernando**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina
- ✘ **Rikardo**, Bilboko Gotzaina
- ✘ **Joan Maria**, Donostiako Gotzaina
- ✘ **Mikel**, Gasteizko Gotzaina
- ✘ **Karmelo**, Bilboko Gotzain Laguntzailea